

**2021EKO AURREKONTUAREN
MEMORIA ETA EZAUGARRI
NAGUSIAK**



2021EKO EKITALDIKO AURREKONTUEN MEMORIA

2021eko aurrekontuak agintaldi berriko espiritua gordetzen du, iaz abiapuntua izan zena proiektu estrategiko berrien sorreran eta jarraipena eman ziena aurreko agintalditik zetozen plan estrategikoei. Horrela, herri plana integratzen duten oinarriko partidak mantendu egiten dira, baina berri batzuk agertu dira, herri planarekin zuzenean lotuta daudenak eta agintaldi hasieran ezarri ziren ildoekin eta proiektuekin bat datozenak.

Proposatzen den aurrekontuak Arrasate aurreratua egiten jarraitu nahi du, XXI. mendeko giltzarri. Bizi dugun paradigma aldaketa eta Covid-19 birusaren ondorioz jasandako pandemiak zuzenean eragin die herritarrei, jarduera ekonomikoetan, hiri ekosisteman eta ekosistema naturalean. Horrek guztiak zerikusia du garapen eta aurrerapen sozial eta ekonomikoa planifikatzearekin ikuspegi inklusiboan eta elkarren menpekoetan.

Ildo horretan, pertsonak kokatzen dira herria eraldatzeko dinamikak sustatuko dituzten politika publikoen diseinuaren erdigunean, non komunitatearen, bizikidetzaren eta garapen iraunkorraren kontzeptuak eraldaketa horren bultzatzaile diren.

Ezin da ukatu Covid-19ak eragindako pandemiak bete-betean jo duela eta haren eraginak ere udal aurrekontuetan isla dutela. Aipatu daitezke ziurgabetasuna, herritarren egoera, hainbat ekimen garrantzitsu atzeratu izana edo hainbat egitasmo egoera berrira moldatu beharra.

Nahiz eta aurrekontua, bere horretan, finantza administraziorako lan tresna bat izan, erabiltzen da urtean zehar zer proiektu egin planifikatzeko eta zer lerro estrategiko jorratu behar diren gauzatzeko, eta lan tresna horrek azaltzen du funtsean zer norabide jarraitu behar den. Gainera, Covid-19aren eraginez, tresna hau izan behar da inoiz baino malguagoa, eta erantzun beharko dio ziurgabetasuneko egoera honi.

Partida batzuetara errekurtsio garrantzitsuak bideratu dira, izan ere, egitasmo batzuei, herri proiektuaren barruan nagusi izan direnak eta aurreko agintalditik datozenak, amaiera emango zaie urte hauetan, eta horrek eskatzen du errekurtsioak bideratzea. Zentzu honetan aipatu daitezke, esaterako, Juan Artzamendi Musika Etxearen birgaitze prozesua berriro abian jartzeko kontu saila (200.000 euro), kontutan izanda obra egiten hasi zen enpresak ezin izan duela obrarekin jarraitu, eta udalak proiektua berrikusi eta falta den zatiaren obra egiteko partida dela. Kulturola egitaspora ere errekurtsio garrantzitsuak bideratu dira, izan ere, aurreikusten da 2019. urtean hasi zen birgaitze prozesua 2021. urtean amaitzea.

Klima Larrialdiak eta osasun pandemiak datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatuko dute. Herri planaren zutabe garrantzitsua da klima larrialdiari aurre egitea, eta nahiz eta Covid-19aren pandemiarekin iruditu hain pil-pilean zegoen gaia desagertu egin dela, administrazio publikoak badu betebeharra eraldaketarekin aurrera egin eta paradigma berriaren baitan pausoak ematen jarraitzeko. Administrazio publiko gisa udalari ere herria jasangarriagoa egiteko egitasmoak gauzatzeko dagokio. Arrasateko herriak eraldaketa ekologikoa egiteko beharra dauka, hau da, energia erdua aldatzen joan behar dugu, energia berriztagarriak sustatzen eta karbono oina murrizten. Klima Larrialdia mehatxu nagusienetarikoa da gure ongizatearentzat, eta ezinbestekoa da hura aintzat hartzea politikak diseinatu eta garatzerakoan. Erakundeek abian jarri



behar dituzte politika eraginkorrak, eta herritarrekin elkarlanean ezinbestekoa izango da gizarte ohiturak aldatzen joatea, garraioan, plastikoen erabileran, kontsumoan, bizimoduan eta abarretan.

Agintaldiko zutabeetako bat da lehen pausoak ematea eredu jasangarriago batera salto egiteko, eta SHREC proiektu europarra ardatz hartuta zein Debagoiena 2030 plataforman parte hartuta, ildo estrategikoak jorratuko dira herrian hainbat eraldaketa gauzatzeko, aurrekontuetan ere isla izango dutenak.

Hor kokatzen dira ekobulebarraren proiektua, Etxezarreta natur eremuari balioa ematea, mugikortasun planaren gauzatzea - oinezkoiei lehentasuna ematen diena - bidegorri sarearen inplementazioa, argiteria publikoaren aldaketa led teknologiarra, herri barruan eta distantzia motzak egiteko autoaren erabilera murrizteko neurriak CO2 isurketa mugatzeko helburuarekin, bizikletaren erabileraren sustapena, eta herri irisgarritasunaren hobekuntza eta mugikortasun bertikala.

Zorrari dagokionez, aurreko agintaldian zorra guztiz kitatu da, eta Arrasateko Udala laga du zero zor egoera betean. Horrela, udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa osasuntsua da Covid-19ak eragindako egoerari aurre egiteko. Pandemiaren eraginez baldintzatuta geratu da udal aurrekontua eta aurreikuspenetan nabarmen jaitsiko dira diru sarrerak; beraz, egokia ikusten da kreditu bat eskatzea, izan ere, udalak ez du zailtasunik izango hurrengo urteetan amortizatzeko. Ildo horretan, proposatzen da inor atzean utziko ez duen aurrekontu bat, eta aurreikusten da 3,2 miloi euroko mailegua eskatzea.

Udala behartuta dago Foru Fondoaren eboluzioaren aurreikuspenak eta likidazioak hurbiletik jarraitzen. 2020ko apirilean udalak aurreikuspen bat egin zuen: Foru Fondotik jasotzen duen ekarpena % 20 jaitsiko zela Covid-19aren eraginez. Horrek behartu zuen udala zuhurtziaz jokatzeko eta aurrekontuaren moldaketa bat egiten, hainbat partida blokeatuz.

2021. urterako Foru Fondoaren aurreikuspena esperokoa baino baikorragoa izan den arren, zuhurtziaz jokatzeko jarraituko dugu, izan ere, gehiegizko baikortasun batek ondorio negatiboak izan ditzake. Zuhurtasunak eroaten zaitu aurrekontu errealista eta arrazoizko batzuk planteatzera, proiektuak lehenetsiz, baina, aldi berean, bide emanez landutako ildo eta programa estrategikoak gauzatu ahal izatera agintaldian, eta oreka bat bilatuz diru sarreren eta gastuen artean.

Aurrekontuak islatzen du udalak garatu nahi duen kudeaketa modua. Esan nahi du aurrera egin nahi duen herri bat izatea, pertsona guztiarekin eta guztientzat; elkarrekin ezinbestean elkarlaneko gobernu eta kudeaketa eredu bat izatea. Ezarri diren helburuetako batzuk dira elkarlaneko gobernantza eskematan lan egitea eta herritarren parte hartzearen bidearekin jarraitzea. Hori guztia instituzioa bera ahaztu barik, bai alderdi politikoan, bai teknikoan. Ildo horretan, administrazio publikoak erronka berriei ere aurre egin behar die, betiere kontutan izanda pertsona-biztanleak direla kudeaketa publikoko ardatz nagusia.

Laburbilduz, lan ildo honek bi ardatz ditu oinarrian: batetik, jorratu behar diren hainbat proiektutan herritarrek parte hartzeko prozesuekin jarraitzea, eta, bestetik, udal funtzionamenduaren kudeaketa eraginkor eta gardena bultzatzea, bai arlo teknikoan, bai politikoan, ordezkatuta dauden alderdi politikoaren arteko bizikidetzaren indartzeko.

Bide horretan bizikidetzak eta partehartzeak sail propio bat dute agintaldi honetan, eta egindako bideari jarraituz 2021. urteko aurrekontuen zati bat parte hartzailea izango da. Arrasateko Udalak aurreko agintaldian abiatu zituen lehenengoz aurrekontu partehartzaileak, eta



horretarako 250.000 euroko partida bat sortu zen herritarrek proposamenak egin ahal izan zitzaten. Dagoeneko hainbat bider jarri da martxan aurrekontu partehartzailearen prozesua, eta balorazio positiboa egin den arren, udala dago hausnarketa momentu batean, orain arteko eredia hobetzeko asmoarekin. Horrela, 2021eko aurrekontuetan jaso da 250.000 euroko partida bat, parte hartzearen egitasmoa aurrera eramateko, baina prozesua izango da ezberdina.

Parte hartzearen alorrean, aurreko agintaldian prozesu bat jorratu zen parte hartzearen ordenantza bat sortzeko, eta agintaldi berri honetan, prozesua amaitu gura dugu, izan ere, administrazioaren etorkizuna ezin da irudikatu parte hartzerik gabe. Parte hartzea naturaltasunez txertatzen joan beharko da administrazio publikoan, eta horrek eskatzen du iraganeko inertziak apurtzea eta ordenantza baten bitartez arautzea, ahalbideratu dadin parte hartzea guztiz txertatua geratzea udal funtzionamenduan eta eragotzi dadin hura izatea momentuko gobernu taldearen nahiaren arabera.

Aurreko agintaldian hainbat prozesu partehartzaile jarri ziren abian eta ildo beretik jarraitu nahi dugu. Bide horretan jorratu da esaterako TAO Arrasaten ezartzeko prozesua, eta Alde Zaharreko plana berritzeko prozesu partehartzailea ere bai (50.000 euro), 2020. urtean hasiera emango zaiona, baina 2021. urtean gauzatuko dena. Baina 2021. urteari begira, partida batzuk jaso dira beste hainbat egitasmo aurrera eramateko, egitasmo partehartzaile ezberdinekin jarraituko da (haur kontseilua 26.740 €), baina hausnarketa kolektiborako egitasmo berriak ere bai: esaterako, Altamira auzoko berrurbanizazio proiektua egiteko prozesu partehartzailea (15.000 euro); San Isidro guneari buruzko hausnarketa komunitarioa egiteko partida (15.000 euro) edo kiroldegi berria egiteko prozesu partehartzaileari hasiera ematea (20.000 euro), behin Athlon kooperatiba espezializatuak kiroldegiaren hausnarketa kolektiboa erraztu eta bideratzeko egindako lanaren bigarren pauso gisa.

Parte hartzearen kultura baliagarria da ezberdinen artean akordioa lortzeko, baita herritarrek administrazioarekiko duten distantzia txikitzeko ere. Horregatik, parte hartze arloaren baitan partida bat jarri da, 25.000 eurokoa, ordenantzaren prozesua bukatzeko eta aurrekontu partehartzaileak aurrera eramateko. Gainontzeko prozesu partehartzaileak beste partida batzuetan jorratuko dira egitasmoen barruan.

Bizikidetzari dagokionez, 2016. urteko irailean Arrasateko Udalak herri mailan bizikidetzara erakitze lanketari ekin zion, abiapuntutzat hartuta herriko memoria berreskuratzea. 2016ko irailetik 2019ko martxora bitartean Memoriaren Mahaiak burutu eta bultzatu zuen lanketa, mahaia osaturik udalean ordezkari politikoak duten alderdietako ordezkariak. Mahaiaren helburu nagusiak izan dira Arrasateko memoria partekatua osatzea eta herri eremuan eraiki beharreko bizikidetzara prozesu zabalagoa bultzatzea, eta elkarrizketa esparru horren oinarri gidariak dira elkarlana eta kontsentsua.

Azken urteotan, mahaia urrats inportanteak eman ditu Arrasateko memoria partekatu bat eraikitze aldera eta herriko bizilagunen minak aitortze aldera. Hasiera batean mahaia diskrezioz aritu bazen ere, 2018ko azaroaren 8an egindako prentsurrekoaren bitartez mahaia izaera publikoa hartu zuen. Bertan, mahaia harturiko konpromisoak ezagutzera eman ziren, bai epe motzera, bai etorkizunari begira harturikoak.

Legealdi amaierarekin mahaiaren hiru urteko lanari amaiera eman zitzaion, bai eta bete gabeko konpromiso eta urratsak izendatu ere. Emandako urratsek eta egindako lanketak suposatuta dute udalerrian abian jartzea bizikidetzara erakitze prozesu bat, baita ere, argi utzi du bizikidetzara



eraikitzeak ekarri duela elkarlana eta kontsentsuan oinarrituriko bide konplexua jorratzea. Jakinda prozesuan eragile batek baino gehiagok parte hartu duela, orain arteko lan esparru nagusia izan da elkarrizketa politikoa bermatu duen Memoria eta Bizikidetzaren mahaia. Mahaiari nolabait jarraipena emateko, baina, era ofizialean, batzorde propio bat sortu da agintaldi honetan.

Aurrekontuetan partida bideratu da bizikidetzaren lantzeko elkarrizketa politikoko esparru segurua eraikitzeko, hau da, esparru bat sortzeko, aukera emango diguna bizikidetzarekin zerikusia duten gai konplexu eta delikatuen inguruan iritzia desberdinak edo kontrajarriak izendatzeko, udalerriak egun dituen beharrak, aukerak eta zailtasunak identifikatu eta egungo testuingurua eta udalean ordezkariak politikoa duten alderdiek aurreko legealdian harturiko konpromisoak kontutan harturik, lan plangintza bat zehaztu eta garatzeko. Lan hori egiteko, 20.000 euroko partida bideratu da.

2021. urteko aurrekontuak jarraituko du herritarren ongizateari dagozkion helburuei lehentasuna ematen, eta apustu horren seinale da %14 igo dela aurrekontu osoa atal honetan, aurreko urtearekin alderatuta. Garapen komunitarioaren atalera udalak bideratuko du guztira 3.852.884,43 euro.

Agintaldi honetan Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria saila uztartu egin dira Garapen Komunitarioa sortzeko, sail bi horien arteko harremana zein elkarlana fintzeko eta hainbat zerbitzutan zein arlotan sinergiak sortzeko. Gizarte ongizatearen prestazioak mantentzeaz gain, ikuspegia zabaldu da herriko beharrak asetzeko helburuarekin.

Pertsonak dira lehentasuna eta lan egingo da gizarte kohesioa bermatzeko. Ildo horretatik, ezinbestekoa da laguntza eta programa sozialen mantentzea, eta gure konpromiso irmoa adierazi nahi dugu, behar izanez gero, horiek handitzeko.

Bestalde, agintaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak aurreko legealdian onartu zuen zerbitzu sozialetako kartarako dekretu berriak abiapuntutzat hartuta, zerbitzuen mapa berri bat ezartzen da Gipuzkoan, eta zehazten da udalek zer zerbitzu eman behar dituzten. Mapa hori eskualdeko herrien artean zehaztu zen aurreko agintaldian. Arrasatek, zerbitzu horien barruan, proposatzen du eguneko zentro bat irekitzea, mendekotasun baxua duten pertsonentzat bideratua. Proiektua amaitua dago eta partida bideratu da Garibai kaleko 1 zenbakian zerbitzua artatuko duen lokalaren moldaketaren obra egiten hasteko (50.000 €).

Aipatzekoa da Covid-19aren eraginez hainbat partida indartzeko beharra ikusi dela eta etxeko laguntza zerbitzua zein pobreziaren kontrako larrialdi planetarako aurrekontuek % 40ko igoera izan dutela, 1.229.000 € bideratuz egitasmo bi horietara.

Etxeko laguntza zerbitzuaren partida 116.000 euroan handitu bazen aurreko ekitaldian, 2021eko aurrekontuei begira % 40 igo da, 230.000 euroan handituz partida (guztira 800.000 euro) eta pobreziaren kontrako larrialdi planerako partida % 43 igo da, 129.000 € gehiago (guztira 429.000 €) egoera larrian dauden pertsonen laguntzeko. Babesgabeke egoerei aurre egiteko zerbitzuaren aurrekontua 322.950 € izango da eta tutoretzapeko etxebizitzaren laguntza zerbitzua ere indartu egin da, partida guztira 60.000 €.

Aurreko ekitaldian eta herri proiektuari jarraikiz, hainbat egitasmo berri jarri ziren. Ekitaldi honetan ere aurrekusten da ekimen horiekin jarraitzea, herri proiektuak jarraipena izan dezan. Ekimen berri horien artean dago elikagaien bankua, eta dinamika horrekin jarraitzeko,



4.300 euroko partida bat egokitu da, bideratuko dena lokalaren alokairua ordaintzeko eta beste hainbat gastu estaltzeko, funtzionamendutik eratorritakoak.

Bestetik, aurreko agintaldian abian jarri zen Lan ere Bai programa berritzailea, erreferentziazko hezitzaileekin kontsumoen inguruan zein estruktura falta duten gazteekin lanketa bat egiteko. Programa pilotu berritzaile horrek Europako laguntza jaso zuen. Droga mendekotasunarekin lotutako programa hau estrategikotzat jotzen du udalak, eta aurreikusten da pauso gehigarri bat ematea proiektuarekin jarraitzeko, Lan ere Bai Berri proiektuaren barruan. Horretarako, 75.000 €-ko partida bat bideratu da; bazterkeria zentroko programa eta bazterketa kasuetarako laguntza berezia batzen dira.

Aurreko agintaldian abian jarri zen alokairu programa berri bat, gazteen emantzipazio aukerak areagotzeko, eta ekitaldi honetan ere 60.000 euroko partida bat bideratu da programaren jarraipena bermatzeko.

Aurreko agintaldian ere Txikitxokoa jarri zen abian, eta legealdi honetan ere aurreikusten da zerbitzuarekin jarraitzea. Horretarako, 39.000 euro bideratu dira. Bestalde, udalak jarraituko du Haurren Kontseiluaren egitasmoarekin, haurren parte hartzea ahalbidetzen duena, eta 26.740 euroko partida bat bideratu da helburu horrekin.

Ildo horretan, umeen kontseiluak parkour parke bat planteatu zuen Aldai parkearen inguruan, eta hura bideratzea adostu zen Obenerreka auzoko frontoian. Parkearen obra egiteko, 120.000 €-ko partida bat jaso da.

Helburu estrategikoa da Arrasate izatea lan inguru aproposa, herri bizia eta erakargarria, eta horregatik atal honek berebiziko garrantzia du. Arrasate udalerririk beste udalerririk batzuetako langile asko jaso izan du eta jasotzen du, eta horren adibide da demografikoki geldituta dagoen herria dela: 2010. urteaz geroztik, 22.000 biztanleren bueltan mantentzen da; 1980. urtea izan zen herritar gehien izan zituen urtea (26.000 biztanle inguru). Udalerririk erakargarria izaten jarraitu nahi du, lan egiteko nahiz bizitzeko.

Aurreko agintaldian, hausnarketa estrategikoa bat egin zen bailarako hainbat eragilerekin eta enpresarekin "etorkizuneko giltza zarelako" egitasmoaren barruan, eta hortik eratorritako hausnarketa kolektiboaren ondorioz, aspektu hauek jaso ziren herriaren etorkizunera begira: Arrasateko enpresen arteko komunitate balioak, lankidetzak, talde lana indartzea; sinergiak eta proiektu berriak sortzea enpresen artean; "Arrasate" sortzen jarraitzea udalerririkaren irudi positiboa emanez eta ekintzak gineuz udalerririk erakargarriago bat sortzeko.

Balio handiko elementuak ditu herriak bere alde, oinarritzeko eta elkarlanean aritzeko. Ezagutzaren alorrean, Arrasate da punta-puntako herri bat: kalitateko hezkuntza sistema publikoa, unibertsitatea, estatuko hezkuntza kooperatibarik handiena, lanbide heziketa, zentro teknologikoak. Bide horretan kokatzen da Gautxori esparrua, zeina Mondragon Unibertsitateak garatuko duen esparruaren zati publikoa, udalak ahalbidetuko baitu kanpus berri bat, herrian aukera berriak eskainiko dituena, ekintzailatza teknologikoaren ikuspegiaren barruan. Zati publikoaren garapenera bideratu dira 375.000 €.

Gainera, agintaldi honetan erabaki zen enplegua eta hezkuntza batzea, ulertuta enplegu duin bat lortzeko lehen pausua dela formakuntza egoki bat izatea, kontuan izanda herrian badirela eskolak, lanbide heziketako zentroa, unibertsitatea, hizkuntza eskola eta abar. Horregatik, bateratu egin dira arlo horietan sinergiak lortzeko.



Lehentasunetako bat da aurreko legegaldian hasitako proiektu berri estrategikoekin jarraitzea, esaterako, Arbigara proiektua, zeinarentzat 13.000 euroko partida bat jaso den. Proiektu horretan uztartzen dira lehen sektorea eta enplegu aukera, lan munduan txertatzeko zailtasunak izan ahal dituen pertsonentzat.

Bestalde, klima aldaketarekin zerikusia daukan proiektu europarra (42.000 euro) ere sail honetatik eramango da, kontuan izanda bertan parte hartzen duten eragile gehienak enpresa zein hezkuntza mundutik datozela eta Debagoiena 2030 plataformarekin uztartuko dela. Baita ere, kontuan hartu da sailaren gaitasuna Europako laguntzak gestionatzeko eta aukera dagoela etorkizunean esparru berri hauetan egun existitzen ez diren lanbide berriak sortzeko.

Arrasatera ezarpen ekonomiko berriak erakartzeko ekintzak ahalbidetzeko, 10.000 euro ezarri dira, eta aktibitateak, foroak eta lan azokak gauzatzeko, 15.000 euro. Udalak aurreikusten du bat egitea Garaia ekintzailtza programarekin, elkarlanean Goiena komunikazio taldearekin eta Garaia parke teknologikoarekin, eta horretarako 10.000 €-ko partida bat jaso da. Era berean, 40.000 euro bideratu dira Mondragon City Challenge egitasmoa martxan jartzeko, elkarlanean Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin, Mondragon Taldearekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Egitasmo horrek uztartzen ditu ekintzailtza, gazteak, enpresa mundua eta nazioartekotzea.

Mantendu egiten dira enpresa berriak sortzen laguntzeko fondoa (35.000 €) eta langabeen formakuntza gastuetarako laguntza programa (30.000 €). Bestalde, langabeak kontratatuzeko laguntza 87.500 euroan ezarri da aurreko urteetako eboluzioari erreparatuta, eta 417.828,37 euro bideratu dira enplegu sustapenaren barruan egoera zaurgarrian dauden herritarrei lan aukerak eskaintzeko.

Udalak jarraituko du kolaborazio publiko-pribatua lan egiten eta Saiolan erakundearekin lankidetzan; entitate horri egiten zaion aportazioa da 20.000 euro. Era berean, Debagoieneko Mankomunitateko enplegu sailari emango zaio 112.600 euro.

Hezkuntzan eragitea garrantzitsua da, eta eraikinetan inbertsioak egiteko, diru kopurua 40.000 euroan indartu da; azken kopurua da 190.000 euro, zeina erabiliko den Erguin guneko herri eskolako komunak berritzeko. Gainera, Eibarreko hizkuntza eskolako gela desplazatuak Arrasatera ekartzea lortu zen aurreko agintaldian, eta Covid-19ren eraginez udalak Debagoieneko Mankomunitatearekin akordio bat lortu du hango gela batean eskolak emateko. Hizkuntza eskolan harrera egiteko, udalak pertsona bat bideratu du, ulertuta hizkuntza eskola publikoak Arrasateko herriari zer ekarpen egiten dion eta urteetan zer eskaera egon den hura herrira ekartzeko.

Aurreko legegaldian hainbat inbertsio egin ziren mugikortasunaren bidetik: Makatzenako igogailu publikoa, espaloiak zabaltzea, urbanizazio berriak eta abar. Abian jarri ziren proiektu estrategiko batzuk, auzoetara igotzeko irisgarritasuna helburu zutenak, izan ere, horrek ekarriko du herritarrek autoaren ordezkari aukera jasangarriago bat izatea eta oinezkoak hartzea protagonismoa eta lehentasuna. Gainera, auzoei garrantzia eman zitzaizkien deszentralizazio irizpideak (jolas parkeak, irisgarritasuna) erabiliz, eta auzoetan inbertsio garrantzitsuak egin ziren. Agintaldi honetan ere udalak jarraituko du auzoetan inbertsio nabarmenak egiten.



Horrez gain hainbat proiektu eta programa jarriko dira martxan, trantsizio energetikoari bide emateko eta, batez ere, CO₂ isurketak murrizteko. Hiri mugikortasuneko eredu berri bat garatuko da, autoaren erabilera gutxituko duena eta oinezkoa lehenetsiko duena, eraldaketa urbanistikoa gailendu dadin. Bide horretan, martxan jarriko dira hainbat politika, zerikusia dutenak garraio publikoaren zerbitzua berrikustearekin, mugikortasun bertikalarekin jarraituko duten egitasmoak auzoen irisgarritasuna hobetzeko asmoarekin: bidegorria osatuko da, bizikletaren erabilera bultzatze aldera, TAO sistema berri bat ezarriko da autoaren erabilera mugatuko duena, herria oinezkoentzat eta bizi komunitarioarentzat erosoagoa egingo duen sistema baterantz. Eraldaketa hori proiektu hauek islatuko dute: Galizia kaleko igogailua, ekobulebarra eta TAO sistema.

Makatzenako igogailua amaitu ondoren, udala exekutatzen ari da Erguingo igogailua 2020. urtean Mugikortasun Planaren barruan, eta 2021eko aurrekontuak jasotzen du Galizia kalean igogailu publikoa egiten hastea, 110.000 €. Egitasmoa proiektu fasean dago, eta hura gauzatu nahi da bizilagunen partehartzearekin.

Mugikortasunarekin eta jasangarritasunarekin jarraituz, bidegorriaren jarraipena lehentasunezkoa da. Honenbestez, asmoa da Araba etorbideko bidegorriari jarraipena ematea eta pausoka herria zeharkatuko duen bidegorri sarea bukatzen joatea; auto pribatuaren aurretik hobetsi nahi dira garraio publikoa eta bizikletaren erabilera. Horretarako, azpiegiturak samurtu behar dute eraldaketa, eta Etxaluze - Maala Ekobulebarra gauzatzeko, 1.230.000 € jaso dira bidegorriari jarraipena emateko eta Garibai etorbidearen zati bat oinezko bihurtuko duen egitasmoa gauzatzeko.

Bidegorri sarearekin jarraituz, Araba etorbidea eta Gipuzkoako Foruen plaza lotuko dituen bidegorria eta Leintzibar kalea hartuko duen bidegorria lotzeko, 15.000 €-ko partida jaso da zati horretako proiektua idazteko.

Arrasaten TAO sistema ezartzeko prozesu partehartzaileak eragin du hausnarketa komunitarioa, helburu duena biztanleek garraio publikoa hobestea autoaren aurretik. Modu horretan, lortu nahi da bide publikoan auto pribatuaren presentzia gutxitzea, herritarrek garraio publikoa zein bizikletaren erabilera hobestea, eta herriko CO₂ isurketa zein kutsadura akustikoa murriztea, herri jasangarri batetarantz pausoak ematen joateko. Herritarrek zein ausazko taldeak egindako lan baliotsua harturik, TAO sistema bat proposatu da, eta hori ezartzeko prozesua aurrera eramateko, 300.000 €-ko partida bat jaso da.

TAO sistema ezartzearen helburuetako bat da garraio publikoa sustatzea; ildo horretan, gune batzuk sortuko dira herritik kanpora aparkatzeko; esaterako, Arruenan, eta abian jarriko da autobus linea berri bat parkingak eta zentroa zuzenean lotuko dituen. Autobus linea berria abian jartzeko, 217.500 € bideratu dira, eta oro har garraio publikora bideratuko da 747.500 €-ko partida bat; eta garraio publikoen tarifen defizita osatzeko, 110.000 €.

Jasangarritasunaren ildotik argiteriako inbertsioak egiteko kontu saila indartu egin da 35.000 €-an (80.000 € guztira) eta zentro publikoetako argiteria hobetzeko 20.000€ gehiago bideratu dira izanik kontu saila 70.000€tako. Gainera, Ur saneamenduko kontagailuak berritzeko 25.000€ jaso dira eta saneamenduak berritzeko 30.000€tan indartu da kontu saila, 50.000€bideratuz guztira.



Zalduspeko egitasmoarekin aurrera jarraitzeko 2021ko aurrekontuak jasotzen du 200.000 €-ko partida bat, zeina erabiliko den bertako pabiloi zaharrak eraisteko behin eraikin zahar horiek erabiltzen dituzten eragileen leku-aldaketa burututa. Dorletako ama txirrindulari elkartearen egoitza izango den Arba etorbideko 13 zenbakiko eraikina berritzeko 50.000 €-ko kontu saila jaso da.

Herri barruan jarritako abiadura radarren gaineko balorazioa positiboa izan da, eta egitasmoarekin jarraitzea aurreikusten da; horrela, radarretan zinemometroa alokatzeko, 70.000 euroko partida bat jaso da. Hala ere, 2021eko aurrekontuetan partida bat jasotzen da abiadura radar pedagogikoak ezartzeko 5.000€ko, ulertzen baita tresna egokiak izan daitezkeela isunik gabe abiaduraren gaineko hausnarketa pedagogikoa eragiteko.

Etxezarreta basoaren erosketa gauzatu eta gero, basoa errekuiperatzeko, 20.000 euroko partida bat jaso da. Era berean, landa eremuko udal jabegoko lursailen mugaketa egiteko ere 30.000 euroko partida bat bideratu da. Gainera, 4/2019 Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoaren legeari buruz hurbilpena egiteko, 16.000 €-ko partida bat jaso da.

Arrasate herriak euskaraz bizi nahi du eta azken 30 urteotan, euskararen normalizazioan, aurrerapauso handiak eman ditu. Ahalegin handia egin da, esate baterako, eskola zein euskaltegietan belaunaldi euskaldunak gizarteratzen. Eta ahalegin handia egin da zenbait alorretan ere, besteak beste, merkataritzan, zerbitzuetan, herri komunikabideetan, enpresetan eta udal administrazioan. Hainbat mugimendu aitzindari izan dira, bai komunikabide arloan, bai herri aktibazioan.

Euskara zerbitzuaren helburu nagusia da egin beharreko ahaleginen plangintza egitea, koordinatzea, sustatzea eta gauzatzea, gizartean eta administrazioan euskararen erabilera normalizatu dadin. Horretarako, gidalero nagusi bi ditu: udal barrurako erabilera plana, plan nagusia udalean lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza izateko eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), helburu nagusia baita arrasatearrek edozein esparrutan aukera izatea euskara gehiagotan erabiltzeko. Erronka nagusia da jakitetik erabiltzera pasatzea, eta ekintzen planifikaziorako kontuan hartzen dira zerbitzuetik egiten diren neurketak (kale neurketak, kirol entrenamenduen neurketak...). Erabilera indartzeko, udalak bat egin izan du eta bat egiten jarraitzen du Euskaraldiarekin.

Euskararen eragileekin batera, Kluster Soziolinguistikoaren laguntzarekin, udala lanketa bat egiten hasi zen 2017an hizkuntza aktibazioaren inguruan. Euskararen eragileekin egindako bilera batean jaso zen Euskalgintza soziala eta instituzionala apalaldian murgildua zegoen sententzia. Hortik abiatuta, erabaki zen hausnarketa prozesu bat martxan jartzea herrietan, euskararen erabilera sustatze aldera. Hautsak astindu eta egiturak aldatzeko beharra ikusirik, egoki ikusi zen modu eraginkor eta aktiboago batean lan egiteko moduak aztertzea, eta horretarako beharrezkoa da herrian elkarrekin jarduteko moduak aztertzea eta probatzea, lan egiteko modu berriak eraikitzea, gakoak identifikatzea eta metodologia sortzea. Prozesu horretatik eratorritako egitasmoen bide emateko, 10.000 euro jaso dira, eta 25.000 € ekintzak egiteko.

Bestalde, euskal hedabideak diruz laguntzen jarraituko dugu, hala nola Goiena prentsa eta telebistarako, 115.703 euroko partida bat bideratu da, eta Goiena irratirako 21.000 euroko partida bat. Aldiz, Mondraberi aldizkari digitalari 21.000 euroko partida bat gorde zaio, eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearekin sinatutako hitzarmenari bide emateko, 44.345 euroko partida bat gauzatu da, zeinak Jokin Zaitegi beka ere barneratzen duen, Nobel sari bat euskarara itzulia



izan dadin ahalbideratzeko. Euskarako dirulaguntzen partida mantentzen da 88.374 euroekin, eta udal ekintzen euskarazko zabalkundea egiteko, 68.000 euroko partida bat bideratu da.

Kulturola proiektuaren obrarekin amaitzeko, 1.402.341,26 -ko partida bat jaso da eta beste bat, 15.000 €-koa, Kulturola barrutik ekipamenduarekin janzten hazteko. Egoitza berriak erantzungo dio Udal Euskaltegiak behar duen lokal egoki baten eskariari, Euskal Kultura ardatz duten beste eragile batzuekin batera. Asmoa izan da euskaltegia uztartzea gainontzeko elkarte zein eragileekin, eta ahalbideratzea euskara ikastera datorren pertsonak aukera izatea euskal kultura ezagutzeko, euskal dantzak, bertsoaritzak, trikitixa eta abar.

Bestalde, aurreikusten da antzerki eskola baten sorrera, aurreko ekitaldian hasitakoa baina Covid-19ak martxan jartzea galarazi duena, doke antzerki taldearen eskutik, eta horretarako, 10.000 euro bideratu dira.

Helburu nagusia da zerbitzuen eskaintza izatea askotarikoa eta kalitatekoa, eta horretarako, ezinbestekoa da kasu bakoitzean lankidetzan aritzea herritarrekin, erakundeekin eta eragileekin. Jasotzen diren jarduera guztiak garrantzitsutzat jotzen dira, eta, horregatik, Herri Proiektuaren parte dira. Hala ere, jarduera batzuek ahalegin handiagoa eskatzen dute, bai plangintzan, bai baliabideetan. Ildo horretatik, Arrasate udalerrri aktiboa bilakatzeko ahalegina aipatu behar da. Izan kirola, izan ariketa, izan jarduera fisikoa, hirurak izan behar dira herritarren eskura egon beharreko aukerak, Arrasate izan dadin pertsona aktiboen bizileku aproposa.

Idea hori landu zen 2017an, Arrasateko Kirolaren Plan Estrategikoan, eragile askoren parte hartzearekin egindakoa, eta hainbat proposamen zehaztu zen, hala nola kirol eremuak auzoetara irekitzea, aire zabalean ariketa fisikoa sustatzea, kirol elkartegintzaren lankidetzak egiturak dinamizatzea, kirol ekitaldi garrantzitsuak antolatzea, kirol turismoa bultzatzea eta kiroldegi berri bat eraikitzea. Azken horren prozesuan aurrera egiteko, 20.000 € jaso dira, Athlon kooperatibak egindako txostena abiapuntutzat hartuta, Arrasateren etorkizuneko kiroldegiaren hausnarketa kolektiboa eragiteko.

Bestetik, aurreikusten dira ere beste ekipamendu batzuk, hobetuko dutenak herritarrei eskaini dakizkiekeen zerbitzuen maila eta bizitza komunitarioa indartuko dutenak, industria ondarearen eraldaketaren bitartez. Horrela, planteatzen da herriko industria ondarearen errehabilitazioa erabilera komunitarioarako, esaterako: Juan Azurmendi Musika Etxea, Kulturola edo ELMA eraikina. Kultura zein enplegu jarduerak eskainiko dituzte, komunitateari baliabideak eta aukerak eskaintzeko, berau indartzeko eta herrigintzarako aukerak areagotzeko.

Lehen aipatu bezala, aurreko legegaldiko proiektu esanguratsuenak, Kulturola eta Juan Artzamendi Musika Etxea eraikinak kontuan hartzen dituenak, protagonista izaten jarraitzen dute 2021eko aurrekontuetan. 1.402.341,26 euroko partida bat zuzendu da Kulturola proiektura, hau da, Erlojuaren Eraikinaren birgaitze lanak bukatzeko, eta 200.000 € Juan Artzamendi Musika Etxea birgaitzeko falta den zatiarekin hasteko. Kulturari eta musikari egoitza propioak eta txukunak emateko asmoarekin, eskualdean ere erreferente kultural izango den proiektua gauzatzen hasi zen 2018 urtean, eta agintaldi honetan amaituko da.

Covid-19aren testuinguruan, sinetsita gaude kultura arloa sustatzen jarraitu behar dela, eta kultura ekintzetarako 350.000 euroko partida bat mantentzen da, baita ere, auzoko jaietarako (75.000 euro) eta herriko hainbat jai ospatzeko, partida da 250.000 €, nahiz eta udalak zuhurtziaz jokatu beharko duen, egoera epidemiologikoaren arabera.



Zehar-lerrozkotasunaren logikaren barruan, ezinbestekoa da gizartearen berdintasuna bultzatzea, helburua baita gizartearen egituraz eraldatzea eta aukera berdintasuna bermatzea.

Osoko Bilkurak 2018ko ekainaren 5ean mozio bat onartu zuen, zeinak eskatzen zuen udaleko sail guztietan baliabidea jarriko zirela berdintasun politiken inguruan formazio saioak egiteko. Berdintasun sailean partida espezifiko bat sortu zen aurreko agintaldian, eta hura mantentzea erabaki da, beste sail estrategiko batzuekin zehar lerrozkotasuna lantzeko eta aipaturiko formazioa eskaintzeko. Hura jorratzeko, 20.000 euro bideratu dira.

2006an Arrasateko Udalak “Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Plana” onartu zuen, eta hasierako apustua 2006-2010 plangintza izatea erabaki bazen ere, 2012an erabaki zen plangintza 2013ra arte luzatzea.

Urte horietan guztietan Arrasateko Berdintasun sailak helburu eta jarduera asko egin baditu ere, aipatutako planean jasotzen zirenak, udalak premia zuen plana ebaluatu eta dagokion jarraipena egiteko, eta lan hori 2018 urtean gauzatu zen. Horregatik, indarkeria matxistaren kontrako bigarren planari jarraipena emateko, partida bat indartu da 3.000 €-an (guztira 60.000 €).

Bestalde, iaz erabaki zen ekintzetarako partida 20.000 euroan handitzea, eta ekitaldi honetan erabaki da berau mantentzea (120.000 €).

Emakume Txokoa lekuz aldatzeko, lokal berri bat behar da, eta hori aztertzeko, 15.000 € bideratu dira.

Kontuan hartu behar da 2016. urtean Emakume Txokoaren egoitzak ez zirudiela egokiena zerbitzua eskaintzeko, gertakari bi deseroso zirela-eta, eta lekuz aldatzea proposatu zela Uarkapetik gertu dagoen leku batera.

Arrasateko Udalak Emakume Txokoa lekuz aldatzeko proposamena aintzat hartu eta proiektua idatzi zuen, eta Berdintasun teknikariarekin batera bermatu zuen udal jabetzako lokal publiko baten egokitasuna, Uarkapen dagoena.

Proiektua jadanik idatzita bazegoen ere (proiektuak jasotzen zuen haurtxoei bularra emateko eremu bat, eta prest zegoenean gauzatzeko, talde politiko guztiek ez zuten garbi ikusten proposaturiko leku berriaren egokitasuna, eta Udalbatza osatzen duten talde politikoekin akordio batera iristeko asmoarekin, berriro ere mahai gainean jarri zen zerbitzua zer lekutan ezarri aztertzea. Horretarako, udalak 50.000 euroko partida bat zuzendu zuen 2017ko aurrekontuetan. 2019ko abenduan EH Bildu udal taldeak proposatu zuen Emakume Txokoa Monterron jauregira eramatea, eta gobernu taldeak bat egin zuen proposamenarekin, baina Berdintasun sailak ez zuen ezelako asmorik erakutsi aukera horrekin aurrera egiteko.

Tokiko merkataritzak berebiziko garrantzia du eta izaten jarraitzen du kontuan izanda pandemiaren eraginez kaltetua suertatu den sektorea izan dela. Sektoreak bizirik mantentzen ditu herriko kaleak, eta ehun ekonomikoaren parte da. Ildo horretan, partida batzuk jaso dira tokiko merkataritza sustatu eta, era berean, baserriarren azokari bultzada emateko. Herriko azokaren printzipioak dira bertakoa izatea (0 km) eta komunitatearentzat espazio, ingurugiro eta baserri munduaren mantentzea; herriko identitatea markatzen duten elementuak dira.



Arloaren aurrekontua % 190 igo da aurreko urtearekin alderatuta, eta batez ere indartu diren partidak dira merkataritza arlora zuzenduriko laguntzak (50.000 € guztira) eta tokiko merkataritza sustatzeko ekintzak (27.000 €). Partida horiek igo dira % 300 eta % 80, hurrenez hurren. Hauetaz gain, 300.000tako partida bat sortu da ostalariei diru laguntza zuzenak bideratzeko.

Alde Zaharreko hirigintza plan berezia aldatzeko prozesuari jarraipena emateko, 50.000 euro bideratu dira tokiko merkataritzan, eta batez ere Alde Zaharreko merkataritzan zuzenean eragiten duen hirigintza plan arautzailea aldatzeko, bide ematen diona merkatarien eskaera historiko bati. Era berean, 20.000 €-ko partida bat jaso da zuntz optikoa Alde Zaharrean ezartzeko prozesuari hasiera emateko.

Ezinbestekotzat jotzen da merkataritza alorreko eragileekin elkarlanean aritzea, eta jarraipena emango zaio Txikiak Egiten Gaitu Handi kanpainari, eta Covid-19aren eraginak gutxitzeko, elkarlanaz baliaturik helburua da amankomunean jardutea. Gainera, herriko merkatarien elkarlanean hitzarmena sinatu eta moldatu berri da, eta hitzarmenaz baliaturik herriko merkatariek herrian ere ekintzak egin ditzaten ahalbidetzeko, 31.000 euroko aurrekontua jaso da.

Jarraituko dugu herriko baserritarrei laguntzen, eta egitasmo erakargarriak antolatzen herritarrek herrian bertan kontsumitu dezaten, elikadura osasuntsua sustatzen eta km 0ko produktuak sustatzen. Merkataritza eta nekazaritza ekintzak egiteko, 13.000 euroko partida bat mantendu da.

Aipatu eta gero 2021eko aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak, udalaren zenbatekoa agertuko dugu aurtengo ekitaldirako aurreikusia; hona hemen horiek:

Udalaren aurrekontua

36.202.466,00 euro

Aurrekontu orokor finkatua da 36.202.466,00 euro, udalaren aurrekontuaren kopuru berbera.

2021eko ekitaldiko zenbatekoak alderatuz gero 2020an onartutako aurrekontuaren kopuruekin, koadro hau daukagu:

ALDERATUTA 2021-2020 AURREK. (kopuruak mila euroan)				
ERAKUNDEA	ARREK. 2020	ARREK. 2021	ALDAERA	2021/2020
Udala	34.829,17	36.202,47	1.373,30	3,94%
Aurrek. Orok. (*)	34.829,17	36.202,47	1.373,30	3,94%



Goiko taulan ikusi daitekeenez, udalaren 2021erako aurrekontu proiektuaren aurreikuspenak % **3,94 igo dira iazko zifrekin alderatuta**. Aurrekontu orokor finkatuak, jakina, ez baitu hartzen udalaren erakundea edo sozietatea baino, % 3,94ko igoera ekarri digu. Azken batean, 2021ean eutsi egin zaio hazkunde arineko zikloari, hasi zena 2018an udal aurrekontuetan, nahiz eta, kasu honetan, horren jatorriak ez dion erantzuten berezko diru sarreraren eta Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren hazkunderari, baizik eta lehendik hasitako inbertsioengatiko konpromisoei erantzuteko beharraren ondorioa da (Kulturola, Juan Arzamendi eta Ekobulebar, batez ere), eta, horretarako, aurreikusi da 3.000.000 euroko mailegu bat, izan ere, diru sarrera arruntak gutxitu egin dira 2 milioi euro inguru (- % 5,68) 2020ko hasierako aurreikuspenarekin alderatuta; horietatik 1.200.000 euro FFMFtik datozen diru sarrera txikiagoei dagokie, eta gainerakoa dagokio zerga, tasa eta prezioen bidezko diru bilketa murrizteari.

Orain, xehetasun handiago batez, aztertuko ditugu udal aurrekontuaren gastuen eta diru sarreraren partida nagusiak.

Hasiko gara Arrasateko Udalaren aurrekontua aztertzen gastuen ataletik.

GASTUEN AURREKONTUA 2021

2021eko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 36.202.466,00 euro, eta % 3,94ko igoera du iazkoaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2021eko aurrekontuak kapituluz kapitulua, aurreko ekitaldiaren aldean, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2021EKO AURREK. - 2020KO HASIER. AURREK.

Kapitulua	ARREK. 2020	GUZ. %	ARREK. 2021	GUZ. %	Aldea	2021 /2020
I Pertsonal gastuak	11.917,2	34,22%	11.922,8	32,93%	5,6	0,05%
II Ondasunak eta Zerbitzuak	11.604,0	33,32%	12.290,2	33,95%	686,2	5,91%
III Interesak	0	0,00%	7,5	0,02%	7,5	
IV Transfer. arruntak	4.729,4	13,58%	5.204,1	14,37%	474,7	10,04%
V Kreditu globala	311,9	0,90%	377,7	1,04%	65,8	21,10%
VI Inbertsioak	5.375,8	15,43%	5.016	13,86%	-359,8	-6,69%
VII Kapital transferentziak	777,0	2,23%	1.283,9	3,55%	506,9	65,22%
VIII Finan. Akt. Aldak.	90	0,26%	90	0,25%	0	0%
IX Maileguen amortizazioa	23,9	0,07%	10,3	0,03%	-13,60	-56,90%
GUZTIRA	34.829,2	100%	36.202,4	100%	1.373,3	3,94%

(Kopuruak mila euroan adieraziak)



Koadro hau aztertu, eta ikusiko dugu, portzentajeetan, udalaren gastu globalari buruz, 2021eko aurrekontuak aldaketa batzuk dituela 2020ko urtearen aldean, eragiketa arrunten nahiz kapital eragiketen inportantziari dagokionez. Aldaketarik esanguratsuenak da VII- Kapital transferentziak kapituluaren pisu erlatiboaren gehitzea (+65,22 puntu ehunekotan), eta horren atzetik datoz IV. Kapituluaren-transferentzia arruntak (+10,04 puntu ehunekotan) eta II. Kapituluaren (Ondasun arruntak eta zerbitzuak) izandako aldaketak (+5,91 puntu ehunekotan) eta, kasu honetan, VI-Inbertsioak kapituluaren beheranzko aldaketa (-6,69 puntu ehunekotan). Beste kapitulu batzuk aldaketa hauek dituzte: pertsonal gastuak (-0,05 puntu ehunekotan), eta, azkenik, finantza zorraren pisuaren gutxitzea (interesak+amortizazioak, 25 puntu jaitsi dira ehunekotan).

Azken batean, nahiz eta partida mailan egon daitezkeen alde txiki batzuk, aipagarriak direnak, 2021eko aurrekontuaren egiturak, kapitulu mailan, apenas erakusten du aldaketa aipagarriarik 2020ko ekitaldiaren aldean.

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen udalak 2021ean:

- **32,93 €** erabiliko dira **pertsonal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira udalkide liberatuen ordainketak, liberatuak egitekoak betetzeko udalean.

- **33,95 €** behar dira gastu arruntei erantzuteko, **udal zerbitzuen funtzionamendutik** sortuak.

- **0,05 €** bideratu dira **finantza entitateekin** hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguren interesak eta amortizazioak**).

- **14,37 €** bideratu dira **transferentzia arruntak edo dirulaguntzak** finantzatzeko; horietatik mankomunatuaren kuotak dira **6,95 euro** (berez udal zerbitzuak dira).

- **13,86 €** bideratu dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.



- **3,55 €** bideratu dira **inbertsioak diruz laguntzeko edo kofinantzatzeko, beste administrazio edo erakunde batzuek exekutatakoak**.

- **0,25 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola **langileei aurrerakin itzulgarriak emateko** (diru sarreren kopuru berdina).

- Azkenik, **1,04 euro** bideratzen da **kreditu globaleko** kopuruak finantzatzeko, bere baliabide ikuspegi bikoitzean ustekabeak finantzatzeko (0,22 euro) eta funts bat, covid-19arekin erlazionatutako ezustekoentzat (0,12 euro) eta 2021eko aurrekontuaren kontura egiteko diren jarduketak, herritarrek aukeratuak parte hartze prozesu batean (0,70 euro).



Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zer eboluzio duen 2021eko gastuen aurrekontuak kapituluz kapitulu, 2020ko aurrekontuaren aldean, baita ere, 2021eko gastuaren portzentaje banaketa, sailkapen ekonomikoaren arabera edo, beste era batera esanda, gastuaren izaerari jarraituz.





Orain aipatuko ditugu gastuen aldaketa nagusiak eta 2021eko aurrekontuaren berritasun aipagarrienak, 2020ko ekitaldiko kopuruaren aldean, sailkapen ekonomikoaren edo gastuaren izaeraren arabera.

LEHEN KAPITULUA: PERTSONAL GASTUAK, 11.922.802,28 euro

Igotzen da % 0,05, 2020ko aurrekontuaren kopuruaren aldean, hau da, 5,6 mila euro gehiago 2020ko aurrekontuaren zenbatekoari dagokionez.

Une honetan tramitazio fasean daude Estatuko aurrekontu orokorrak, 2021 ekitaldikoak (oinarrizko legeriaren izaerarekin, derrigorrean betetzekoa, azken urteotan Estatua ibili da erregulatzen, bere aurrekontu orokorren bidez, soldaten berrikuspen muga baimenduak) tramitatzen, ez baitago norabide zehatzik 2021 aurreikuspenak kalkulatzeko, eta banakako soldata kostuen estimazioak egin dira, sailez sail kapitulu honetan, 2020 oraingo plantilaren arabera, aurreikuspenik gabe ezer gehitzeko.

Lanpostuen zerrendari dagokionez, albora utzi barik pertsonal dedikazioak berriro esleitu izana hainbat sail eta batzordetara, udal plantilan ez da amortizatzen lanposturik eta ez da sortzen lanpostu berri egonkorrik. Edozelan ere, egoeraren arabera, errefortzuak jasotzen dira aldi baterako langileak kontratatuta, zerbitzu jakin batzuen behar puntualak betetzeko (Pertsonalean, Gizarte Ongizatean, Kirolen sailean eta abarretan). Egokitzapen eta aurreikuspen horien ondorioz, kapitulua murriztu egiten da, sinbolikoa bada ere.

BIGARREN KAPITULUA: ONDASUNAK ETA ZERBITZU ARRUNTAK EROSTEA, 12.290.172,00 euro

Handitzen da % 5,91, 2020ko aurrekontuaren aldean; gastu handiagoa, 686,2 mila euro. Handitzearen azalpena, hasieran onartutako 2020ko aurrekontuari dagokionez, zenbakietan, partida hauetatik dator:

- **Antzerki Eskola:** partida hori 2020an sortu zen lehen aldiz, baina, Covid-19aren pandemiak ekitaldi horretan sortutako egoera dela-eta, ezin izan da gauzatu hasieran pentsatutako moduan. Edozelan ere, 2021ean mantendu egiten da partida hori, **10 mila euroko** kopuru berberarekin, **antzerki eskolarako** bideratua, zeina Kultura sailetik abian jarri gura baitute 2021ean.
- **Etxeko laguntza zerbitzurako diru hornidura handitzea** (▲230 mila euro, zerbitzuaren benetako eskaeraren ondorioz, esleitze irizpide berriak ezarri ostean); gainera, antzeko baldintzetan mantentzen dira tutoretzapeko etxebizitzetako etxeko laguntza zerbitzuaren diru hornidura (60 mila euro) eta adingabeen babesgabetasun egoerarako aholkularitza zerbitzuaren diru hornidura (323 mila euro).



- **Lan R-Bai programa, 75.000 €**-ko diru hornidura batekin. Nahiz eta 2021etik aurrera Europak ez duen aurreikusten laguntzarik programa horretarako, azken bi urteetako esperientzia positiboa ikusita, planteatzen da programa horrekin jarraitzea nolabait, nahiz eta udal finantzaketa eskusiboarekin izan eta planteamendua nolabait egokituz udal irizpideen arabera. Proiektu horren helburua da ibilbide inklusibo pertsonalizatuak sortzea prestakuntza enpleguaren bitartez, gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen egokিতuta, gizarte-hezkuntzako laguntza batez, zeinak ahalbidetuko baititu tresnak, bitartekoak eta trebetasunak eskuratzea, beharrezkoak heziketa normalizatu batera eta lan merkatura (barestua edo normalizatua) iristeko.
- **TAO sistema berria**, nabarmen handitu da TAOren zerbitzurako partida (▲235 mila euro), aparkatze arautu zerbitzuaren ordenantza berria onartzearen ondorioz, aurreikusten da sistema berria ezarriko dela 2021eko uztaileko, zerbitzua azpikontratatu. Sistema berri hori abian jartzearen eragin ekonomikoa kalkulatu da izatea 250.000 euro 2021eko sei hilabeteetan, hau da, urtean 500 mila euro inguru. Nolanahi ere, aurreikusten da gastuaren gehikuntza hori finantzatzea zerbitzu horrek sortutako diru sarrerekin, bertakoen eta gainerako onuradunen txartelen bidez, bai eta zerbitzua makinaren bidez erabiltzea ere.
- **15 mila euroko** partida bana sortzea, partaidetza eta gogoeta prozesuak egiteko, **San Isidroko guneei eta Jose Luis Iñarra berritzeari** dagokienez.
- Halaber, partida berri bat sortzen da, **18 mila eurokoa**, Barne Antolaketaren sailean, udaleko **lanpostuen zerrenda berrikusteko**.
- **Herribusaren zerbitzurako** partidaren gehikuntza esanguratsua: **747.500 € (▲217,5 mila euro)**, udalaren nahiaren ondorioz, linea berri bat ezartzeko, Arruena parkea (disuasio parkina) eta herrigunea lotuko dituena. Era berean, **61 mila euroko** igoera garraio publikoaren tarifa defizita osatzeko, erabiltzaileak eta diru sarrerak gutxitu baitira 2020an, pandemian zehar herritarrei eta jarduera ekonomikoari ezarritako konfinamenduen eta mugen ondorioz.
- **Enplegu sailean, partida bi mantentzen dira**, funts publikoekin finantzatutako proiektu bi aurrera ateratzeko:
 -) **INTERREG SHREC** proiektua (**onartua**), diru kopurua 2021ean **42 mila euro**: jarraitzen dugu 2020an hasitako proiektuarekin, zeina, 4 urteko iraupenekoa, 2023an amaituko den. 2021erako, aurreikusten da 35 mila euroko finantzaketa bat. Finantzaketa osoa izan liteke 140.000 euro inguru (gastu osoaren % 85 bat). Helbura da, beste europar parte hartzaile batzuekin elkarlanean, CO2 emisioak gutxitzea, eta horretarako, erabiltzea energia berriztagarriak, identifikatzea praktika onak eta plan bat diseinatu eta ezartzea.



- J) **ARBIGARA** proiektua, 2021erako gastu estimatua izanik **13 mila euro** eta **10 mila euroko** finantzaketa bat. Proiektuaren helburu da erabili barik dauden landa lurrak aktibatzea, nekazaritzara bideratzeko. Programa pilotua egingo da Garagartzan, udalaren jabetzako lurretan, eta parte hartuko dute Sarea-Caritas Fundazioak eta Neiker Ikertegiak, udalarekin berarekin batera. Produktu ekologiko bat sortu nahi da, lanpostuak sortu, funtzioa eskuz egin dezaketenak, baita ere, kualifikazio maila handiagoko lanpostuak, eta inguruko jantokiei km 0ko produktuak eman.

Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarako laguntza programaren finantzaketa dauka, zehazki % 80koa, eta proiektua amaituta egon behar da 2021eko abenduaren 31rako.

Azkenik, adierazi behar da, lan premisa moduan, kapitulu honen aurrekontua egiteko, irizpide bat erabili dela, alde batera utzizta lehen aipatu diren proiektuak eta planteamenduak, oinarrituz 2020ko bukaeran izan litekeen gastuan, borondatezko gasturik ez handitzeko, eta zerbitzuen oraingo eskaintza mantentzea; horrek esan gura du aldaketa horiek, erregela horri buruz planteatuak, erantzuten diotela izaera berezi bati eta oinarritzen direla lehentasunen balorazio batean.

HIRUGARREN KAPITULUA: MAILEGUEN INTERESAK, 7.500 euro

2020ko aurrekontuan udal kontuetan zero zorpetzea lortu ostean, kapitulu honetan nabarmentzekoa da berriro ere zenbateko bat esleitzen dela, zeina egokitzen baitzaie interesei, halakorik sortzen bada mailegu bat kontratatzearen ondorioz, beharrezkotzat jo dena udal gastuen eta diru sarreren kapituluak orekatzeko beharrezkotzat jotzen den mailegu bat kontratatzearen ondorioz sortu daitezkeen interesei dagokiena.

2021erako aurrekontu aurreikuspena egiteko, maileguaren simulazio bat egin da, 3.200.000 eurokoa, 2021eko ekainean kontratatu beharrekoa, 10 urteko eperako eta urtebeteko gabealdiarekin, eta % 0,5eko interes tasarekin; beraz, 2021ean 2 hiruhileko interesak baino ez dira ordainduko. Edozelan ere, datu horiek erreferentzia hutsa baino ez dira, eta ez dituzte baldintzatzen maileguaren zenbatekoa, epea eta baldintzak, benetako finantzaketa beharren arabera azkenean kontratatzen den maileguarena.

LAUGARREN KAPITULUA: TRANSFERENTZIA ARRUNTAK, 5.204.029,00 euro.

Handitu da % 14,37 (▲474,7 mila euro) 2020rako hasiera batean onartutako aurrekontu kopuruari buruz. Nahiz eta partida jakin batzuek behar duten azterketa eta azalpen osagarri bat, 2021eko aurrekontuan jarritako aldaketa datuek, 2020ko kopuruari buruz, balio digute agerrarazteko udalak ahalegin handia egin duela aurrekontuetan kapitulu honetako gastuen partidetan (batez ere jasotzen ditu zerbitzu mankomunatuaren kuotak eta dirulaguntzak).



Kapitulua honen alderdi aipagarriak dira:

- **Zerbitzu mankomunatuaren kuotei** dagokienez, aurrekontu hau onartzeko prozesuan zehar jakin dakigun arren zein izango den Mankomunitatearen 2021eko ekitaldirako aurrekontu proiektuaren zirriborroa, zeina, bere zenbateko orokorrean, 2020ko ekitaldiko behin betiko aurrekontua baino pixka bat txikiagoa baita, erabaki da aurreko aurrekontuko diru izendapenei eustea, kontuak behin betiko onartu bitartean, izan ere, egunean jarri barik zeuden udalerrri batzuetako biztanle eta zergadun baliokideen datuak, eta horrek ekarri lezake azkenean alde txikiren bat egotea. Partiden zenbatekoa, 2021ean Debagoieneko Mankomunitatearen bidez eman behar diren zerbitzuak finantzatzeko, 2.633.023,12 euro da. Kostu nagusiak datoz hondakinen bilketa zerbitzuetik, kudeaketa zerbitzuetik, tratamendu zerbitzuetik eta Garbigune zerbitzuetik, zeintzuen kostu globalizatua den 1.994.650,00 euro (kostu osoaren % 76 ia).

- Enplegua sortzen duten arloei lehentasuna ematen zaienez, 40 mila euroan gehitu dira udalak sustatutako programen zuzkidura ekonomiko garrantzitsuak. Hala, beste partida bat gehitu zaiei “langabeak kontratatuzko laguntza programetara, langabeen prestakuntza gastuetara, lanpostu berriak sortzera, tituludun berrien enpresetan praktikak egiteko beketara edo karrera amaierako proiektuetara” eta CEI-Saiolani egindako 181.500 euroko ekarpenera bideratutako baliabide ekonomikoari, 40 mila eurokoa, Mondragón City Challengerako dena (besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren, MCC-ren eta Euskadiko Kooperatiben Kontseiluaren laguntzarekin).

- Partida batean diru kopurua gehitu da **129 mila euroan**, eta hori bideratu da **Gizarte Larrialdietarako Laguntzen programa** finantzatzeko, 429.000 €-ko esleipen batekin, eta, aurreko ekitaldietan bezala, aurrekontu zuzkidura horiek **handitzeko konpromisoari** eutsiko zaio (funts propioaren partida barne), baldin eta laguntzen eskariaren bilakaerak hala eskatzen badu, gobernu taldeak **lehentasuna** eman baitio **biztanleria sektore babesgabeen beharrei laguntzeari**.

- **Diru kopuruak mantentzen dira dirulaguntza izendunak emateko, Arrasate Musikali esleituak, 325 mila euro.**

- **Goienarentzako (prentsa eta irratia) eta Arkodirentzako dirulaguntzak 2020ko mailan mantentzen dira:** 136,7 mila euro eta 21 mila euro, hurrenez hurren.

- Bere diru horniduran **gora egin duen beste partida bat da merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreentzako dirulaguntzena**, zeina, 33,8 mila euroko igoerarekin, 50 mila euroko esleipenera iristen baita. Ikusirik Covid-19aren pandemiaren eraginez gehien sufritu duen sektoreetako bat dela, eragin gura dugu sektore horrentzako laguntzetan.

- Memoriaren adierazi bezala, orokortasunez, esandako salbuespenak salbuespen, **2020rako jarraitzen dugu diru laguntza programekin**, baita ere, **2020ko aurrekontuan izaera nominatiboko diru laguntzekin**, iazkoaren antzeko diru kopuruekin. Edozelan ere, kopuru handia delako, komeni da gogoratzea aurrekontuko baliabideek, udal batzordeen eta udal sailen diru laguntzen programak finantzatzeko direnak (sartu barik gizarte larrialdietako laguntzak, nagusiki EJK finantzuak), **2,0 milioi euro egiten dutela**.

- Halaber, **udaleko talde politikoei ordaindu beharreko kopuruek eta kontzeptuak** mantendu egin dira kopuru berberan, legealdi honen hasieran ezarritako erregulazioaren ondorioz, osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez (2020/07/09an), eta aurreko legealdian



baino talde bat gutxiago dagoelako (pasatu gara 5etik 4 talde izatera); hala, partidan esleitu da 200.000 euroko kopuru bat. Edozelan ere, kopuru hori aurrekontuan jaso da kontuan hartuta zenbat bilera egin den, eta zenbat etorri diren bileretara hilabete gutxi batzuetan, erregulazio hori aldatu eta gero; hortaz, jaso den zenbatekoari buruz, litekeena da aldaketaren bat behar izatea, kontuan hartuta zenbat bilera egingo diren eta benetan zenbat etorriko diren urte osoan.

BOSGARREN KAPITULUA: KREDITU GLOBALA ETA USTEKABEAK, 377.747,22 euro

Kontzeptu hau, 2015era arte aurrekontuetan jasoak bigarren kapituluan, 2015eko abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuaren ondorioz, zeinak onartzen baitu Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua, bosgarren kapitulu berri batean jasoko da, “Kreditu Globala eta beste ustekabe batzuk” izenekoa, zeinaren bidez aukera dagoen ekitaldian egon daitezkeen beharrak finantzatzeko, horiek ez baleude jasota (edo ez badaude, baina ez badute behar beste diru hornidurarik) hasieran onartutako aurrekontuan.

Era berean, kapitulu honetan partida hiru jaso dira:

- Orokorra da ustekabeei erantzuteko edo egokitze behar txikiei erantzuteko, zeinak izango duen 77.747,22 euro; kopuruak 2020ko aurrekontuan onartutakoa bikoizten du.

- Beste bat covid-19ak sortu ditzakeen ustekabe edo beharrei erantzuteko, 50.000 euroko zenbatekoarekin.

- Eta bat espezifikoa, aurrekontuen partizipazio prozesuan aukeratutako proiektuei erantzuteko, martxan jarriak udalean 2018az geroztik, herritarren parte hartzea erraztu eta bultzatzeko, proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko interes orokorrari eragiten dizkieten proiektuetan. Esleitzen da 2020koaren antzeko diru kopuru bat, 250.000 euro, azkenik aukeratzeko diren proiektuak finantzatzeari erantzuteko. Amaituta epea proposamenak aurkezteko, aldeztu aurreko azterketa tekniko eginda proposamen horien bideragarritasun tekniko edo ekonomikoari buruz, geroago herritarrek emango dute iritzia botoen bidez.

Hortaz, erabaki horrek zehaztuko du zer interbentzio finantzatuko diren, eta kontabilitate egokia egiteko, beharko da egokitu aurrekontuetara (pasatuko dira, egokiak badira, aurrekontuetako kapituluetara, eta erantzungo zaio proposatutako gastuaren izaera ekonomikoari).

2020ko ekitaldian, 250.000 euroko partida bat esleitu bazen ere, alarma egoera dekretatuta Covid-19aren ondoriozko pandemiari aurre egiteko, eta horrek udalaren diru kutxetarako ekarri zuen diru-sarreraren murrizketa dela-eta, Osoko Bilkurak erabaki zuen partida hori kalifikatzea erabilezin, eta, beraz, 2020an ez da egin parte hartzeko aurrekontuari dagokion prozesurik, eta, era berean, egoera hori baliatu da prozesu hori berriro diseinatzeko, izan ere, ondorioztatu da prozesu hori hobetu egin daitekeela.



SEIGARREN KAPITULUA: INBERTSIOAK, 5.015.991,26 euro.

Kapitulua dakar % 6,69 gutxitzea (359,8 mila euro gutxiago), 2020ko aurrekontuan kapitulu honi esleitutako kopuruari buruz.

Azken urteotan bezala, inbertsio partida garrantzitsuenak dira “Kulturola proiektuaren erreforma” eta “Juan Arzamendi Musika Eskola” proiektuak finantzatzeko (neurri txikiagoan dago kontratistak obrak bertan behera utzi dituelako eta kontratua suntsiarazi delako. Aurreikusten da obrak berriro egitea 2021eko lehen seihilekoan), eta inbertsio horiei gehituko zaie **Ekobulebar Etxaluze-Maala** 2021ean, **1.230.000,00 euro**ko zuzkidura ekonomikoarekin.

“**Ekobulebar Etxaluze-Maala**” obra da legegintzaldi honetako jardun garrantzitsuenetako bat. Urte anitzeko proiektua denez, inbertsioa guztira izango da **2.154,4 mila euro** inguru, banatuta 2020ko (100 mila euro), 2021eko (1.230 mila euro) eta 2022ko (824,4 mila euro) aurrekontuen artean. Obrak honek Garibai-Biteri-Maala inguruaren fisionomia aldatuko du, eta lekua irabazi gura du oinezkoarentzat, eta, aldi berean, udalerriko bidegorri sarea handituko du, eta lehenetsi garraio publikoa garraio pribatuaren aldean.

Aipatu proiektuekin batera, Arrasateko udalerriko mugikortasun eta irisgarritasun planen arabera, komunikazio bertikaleko esku hartze bana exekutatu behar da udalerriko hainbat lekutan. Era berean, Horietako lehenak ezartzen du lehentasun irizpide orientatibo bat, jakiteko zer egin esku hartze horietako bakoitzari helduz.

Aurrekoarekin bat etorritik, lehenik eta behin, Erguin auzorako pentsatutako konponbideari heldu zitzaion, horko igogailu publikoak jartzeko obrak amaituko baitira, seguruenik, 2021eko lehen hiruhilekoan. Obra horrek ez du eragingo aurrekontuan 2021ean, ia % 100 finantzatzen baita 2020an esleitutako kredituaz (8,1 mila euroko partida txiki bat baino ez da sartzen). Aitzitik, pentsatutako beste jarduketak bat da Galizia kaleko igogailua(r)ena. Kasu honetan, 2020an proiektua idaztea esleitu da, eta aurreikuspenen arabera, obrak 2021ean lizitatuko dira, lanak 2021eko amaieran hasi daitezkeen. Aurtengo diru kopurua da 110 mila euro, eta urte anitzekoa izango da.

Bestaldetik, aurreko urteetan bezala, garrantzi handia izango dute “**Juan Arzamendi Musika Eskola**” eta “**Kulturola proiektuaren erreforma**” proiektuak finantzatzeko bideratu diren partidak, diru kopuruak izanik 2021ean 200.000 euro eta 1.417.341,26 euro (ekipamendua barne), hurrenez hurren (aurrekontuaren inbertsio osoaren % 32,5).

Ordena kronologikoaren arabera, “Juan Arzamendi Musika Eskola” proiektua adjudikatu zitzaion Lurgoien SAU enpresari, 2018ko urtarrilaren 16ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, guztira 5.550.012,51 euro. Obrak egin bitartean, kontratuaren zenbait aldaketa onartu ziren, eta, horien ondorioz, kontratuaren azken prezioa igo egin zen, eta 5.849.544,78 eurora iritsi zen. Obrak amaitu behar ziren 2020ko lehen hilabeteetan, baina 2020ko urtarilean kontratistak udalari jakinarazio zion ezin zuela obrekin jarraitu. Lurgoien SAUk obrak bertan behera utzi zituen, udalak enpresa horrekin zuen kontratua suntsiarazi zuen, eta obren behin betiko likidazioa onartu zuen (60.000 euro inguruko desfase batekin exekutututako obraren eta kontratistari ordaindutako obraren artean), baita ere, onartu zuen hark jarritako 240 mila euroko bermea konfiskatzea.



Obrak gelditu egin direnez eta, horren ondorioz, kontratua suntsiarazi, eta krisi ekonomikoaren egoeratik, Covid-19aren pandemiaren ondoriozkoa, eta udalarentzat horrek gutxitzea ekarri duenez diru sarreretan (batez ere, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsa murriztu zen, apirilean -3.200 mila euro), udalak birplanteatu egin du egoera, obra horietara bideratu beharreko diru hornidurei dagokienez. Alde batetik, 2020an, aurre egin behar izan zaie aseguratze obretatik etorritako gastu bereziei, beharrezkoak izan direnak obra eraikiaren zatia bermatzeko, eta proiektu berri bat egin behar izan da, egiteko dauden lan guztiak biltzen dituen. Lan horiei aurre egiteko, udalean LURGOIEN SAU enpresak jarritako abalak gauzatzearen ondorioz sartutako dirua erabili da. Eta, beste alde batetik, gastuen aurrekontua 2020rako diru sarreren aurreikuspen errealerara egokitzeko, erabaki zen obra horretarako erreserbatutako kredituaren epeak berriro ezartzea indarrean zegoen aurrekontuan, halako moldez non obra horretarako erreserbatutako 1.012 mila euro aldatuko baitira etorkizuneko ekitaldietara, ikusirik 2020an ez zela beharrezkoa izango obrak ordaintzeko.

Hala, 2020ko ekitaldiko aurrekontua egiteko unea iritsita, udalak eginda ditu dagoeneko beharrezko aseguramendu obrak, eta proiektuaren idazlanak adjudikatu ditu lanak amaitzeko. Hala ere, oraindik ez dugu proiekturik, ezta ere, beraz, aurreikusitako aurrekonturik eta exekuzio eperik; hortaz, ezin dugu jakin egin gabe dagoen inbertsioa benetan zer-nolako izango den. Horregatik, informazio gehiago izan arte, erabaki da 2021eko aurrekontuan sartzea 200.000 euroko partida bat, zeina, itxitako ekitaldietako kredituekin batera, iristen baita 2,5 milioi euro ingurura aurrekontuko diru izendapenean, lehendik gordeak obra horretarako. Proiektua eduki bezain laster, obren finantzaketa osatu beharko litzateke, etorkizuneko ekitaldietako konpromiso kredituen bidez, edo 2020ko ekitaldiaren likidaziotik ateratzen den soberakinaren bidez (halakorik egonez gero), edo bien konbinazio baten bidez.

Proiektuetako bigarrena, "Kulturola" eraikinari buruzkoa, 2019ko urrian hasi zen. Udaleko Osoko Bilkurak, 2018ko uztailaren 10ean egindako bilkuran, eraikina birgaitzeko proiektua onartu zuen, 6.576.641,92 euroan, baita ere, obren kontratazioaren espedientea hasia. Geroago, obrak adjudikatu zitzaizkion osoko bilkuran, 2019ko otsailaren 5ean, 6.149.160,18 euroan, BEZa barne, eta 16 hileko exekuzio epe batekin. Lokalen erabiltzaileak birkokatu behar direla-eta lanak ez zirenez hasi 2019ko urrira arte, aurrekisten da lanak amaitzea 2021eko lehen zatian.

2021eko aurrekontu hornidurarekin obra guztiak finantzatzen amaituko da, eta, beraz, proiektu honen finantzaketa bideratuta dago. Halaber, 2021eko aurrekontuan 15 mila euroko partida bat sartu da, obrak amaitutakoan eraikin horretako ekipamendurako. Hori guztia uko egin barik beste administrazio batzuen finantzaketa lortzeari, ondasun higiezinaren izaera eta kalifikazioa kontuan hartuta, babes bereziko ondaretzat katalogatuta baitago, eta 440.000 euroko dirulaguntza, Gipuzkoako Foru Aldunditik jaso 2020an.

Beste proiektu garrantzitsu batzuk, aipagarriak, hauek izango lirateke:

- Garibai 1, etxabeko birmoldatze lanen partida (Eguneko Zentroaren Zerbitzua) - 50.000 euro. Berriro heldu zaio proiektu honi, 2020an 20.000 euroko diru kopurua izan arren bazterturik geratu zena, aurrekontuan doikuntza bat egiteagatik. 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koa, onartu zuen gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroa. Beste gai batzuen artean, arau horrek jasotzen du EAEko administrazioek zer zerbitzu eskaini eta bermatu behar



duten. Beste zebitzu batzuen artean, zeinen prestazioa den udalen eskumena, eguneko zentroaren zerbitzua dago (1.7), zehazki “**eguneko laguntza zerbitzua ematea pertsona nagusiei**”. Zerbitzu hori erabiliko da aldi baterako edo etengabe, eta zuzendua dago arriskuan dauden edo mendekotasun egoeran dauden pertsona nagusiei (I. gradoa, puntuazioa 25 eta 39 bitartean mendekotasun balorazioaren baremoan).

Zerbitzuaren prestazioak izango dira: Informazioa, bitartekaritza-bitartekotza, esku hartzea hezkuntza eremuan eta psiko-gizarte eremuan (entzute aktiboa eta emozioen kontrola). Izaera osagarritz jaso ahal izango dira ere mantenu zerbitzuak (janaria) eta higiene pertsonala.

Gaur egun, Arrasateko Udalak ez du ematen zerbitzu hori. Behar horri erantzuteko, pentsatuta dago zerbitzua abian jartzea 2022an, eta asmoa da lokalak kokatzea Garibai 1eko beheko solairuan. Horretarako, egokitze obrak egin beharko dira lokalean, eta planteatzen da 2021eko aurrekontuetan partida bat jartzea, horiek finantzatzeko.

- **Hondarribia kalea 1eko lokala birmoldatzea: 50.000,00 euro.** Obra hau lizitatu eta adjudikatu zen 2020an, 110 mila euroan, baina zati bat (50.000 €) finantzatu zen konpromiso kredituen bidez; beraz, partida honetan jasotzen da obren 1. fasea amaitzeko konprometitutako zenbatekoa. Obrak dira Hondarribia kaleko 1-3 zenbakian dagoen lokala birmoldatzeko, birgizarteratze programa baten egoitza bihurtzeko, udaleko Garapen Komunitarioaren sailak daramana. Hasierako eraispena eta obra zibileko lanen 1. fasea egin ostean, udalaren Lan R bai eraberritze programan parte hartzen duten pertsonak amaituko dituzte lokala birmoldatzeko lanak, hala nola alikatatzea, iturgintza, elektrizitatea, dekorazioa eta abar.

- **Zalduspeko urbanizazioa: 200.000 euro.** Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) jasotzen du Zalduspe eremua udal ekimeneko hirigintza interbentzio bat moduan. Prozesua hasi zen duela denbora bat, eta garatzen joan dira beharrezko alderdi juridikoak eta teknikoak obrak bere osotasunean hasteko. Horietako batzuk, eraiste batzuk eta obra txikiren bat, dagoeneko exekutatu daude, baita ere, alde zuzeneko lanak lurzoru kutxatuei buruz.

Urtero partida bat txertatzen da halako interbentzioak exekutatzeko jarraitzeko, bukaerako behin betiko urbanizazio obra egin baino lehen.

- **Leintzibar-Foruen plaza bidegorria: 15.000 euro.** Inbertsio hau bideratu da Leintzibar-Foruen plazako bidegorria eta Araba etorbideko bidegorria lotzeko, iaz amaitu zena, eta obra haren jardun eremutik kanpo geratu zena.

- **Elorregiko komun publikoak: 25.000 euro.** 2019ko aurrekontu parte hartzaileen prozesuan onartutako proiektuen artean dago komun publikoak jartzea Elorregin, bidegorriaren inguruan. Proiektu hori bi faktorek atzeratu dute: alde batetik, Covid-19aren pandemiak, eta bestetik, Bergara eta Oñatiko udalekin izandako elkarriketek, obrak batera egiteko hiru udalerriei komeni zaien leku batean. Azkenik, ematen du exekutatu behar dela Arrasate eta Oñati herrien artean, une honetan Oñatiko Udalak proiektua idazteko fasean duela, eta zehazteko zain lanak zelan exekutatu. Espero da exekutatzea 2021ean.



- **Udal ondarearen inbertsioen partida: 50.000 euro.** Partida hau urtero errepikatzen da aurrekontuetan, eta erabiltzen da udalaren ondare ondasunen mantentze arruntak ez diren jardunak finantzatzeko.

- **Ondare ondasunen erosketaren partida: 20.000 euro.** Partida hau aurrekontu guztietan jasotzen da, ondare ondasunen erosketa finantzatzeko, hala egitea iritziz gero.

- **Bide publikoak urbanizatzeko partida: 20.000 euro.** Partida hau da udal azpiegituren sareetako beharrei aurre egiteko. Ez dago jarduketa zehatzik definituta, eta ohikoa da urte barruan beharrak sortzea matxurak gertatzen direnean, edo beste arrazoiren bat dagoenean.

- **Bizkaia etorbideko eskailerak sendotzeko partida: 50.000 euro.** Une honetan itxita daude Bizkaia etorbidetik Erguñera doazen eskailerak, segurtasun arrazoiak direla medio (eskaileren gainean harriak erortzen direlako); jarduketa honen helburua da ezpondaren egoera aztertzea eta behar diren neurriak hartzea erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko eta eskailerak berriro ireki ahal izateko.

- **Gesalibarren horma egonkortzeko partida: 90.000 euro.** 2020an, lan batzuk adjudikatu eta idatzi dira horma konpontzeko proiektua idatzi eta azterketa geologikoa egiteko. Kontua da horma bat konpontzea, Gesalibar auzoan izandako lur jausi batek kaltetua, eta bidea berriro irekitzea egoera normalean egon dadin; horretarako, dagozkion baimenak adostu beharko dira eraginpeko lursailen jabeekin.

- **Garagartzako ur sareko fibrozementoa aldatzeko lanen partida: 150.000 euro.** Proiektu bat idazten ari da, 2021ean lanak exekutatzeko. Hasiera batean, pentsatuta zegoen hobi berri bat sartzea oraingo ur sarean, zuntz zementuzkoa baita, baina azkenean erabaki da oraingo zuntz zementuzko hodiak kentzea eta berria jartzea.

- **Asfaltatze lanen partida: 20.000 euro, beste urte batzuetan baino kopuru txikiago batekin,** azken urteotako joerarekin jarraituz, lanean ari gara udaltzaingoarekin elkarlanean udalerriko bide publikoetako zorua konpondu eta hobetzeko lanei aurre egiteko.

- **Azokako inbertsioen partida: 50.000 euro;** Azoka birmoldatzeko proiektuaren zuzentze lanak definitzeko, 2016/2017 ekitaldietan prozesu parte hartzaile bat egin zen. Prozesu horretan definitu ziren udal azokak zer ezaugarri nagusi izango zituen, eta 2019ko partidaren kontura adjudikatu da proiektua idaztea. Proiektua idatzi ostean, hura onartu eta gero, lizitazioa aterako da obrak exekutatzeko, eta helburu moduan planteatu da obrak hasi daitezkeela 2021ean, eta jarduketa dela urte anitzekoa.



- **Santa Marinako parkour-aren partida: 120.000 euro.** 2019ko aurrekontu parte hartzaileen prozesuan onartutako proiektuetako bat da, diru hornidura handitzeko beharragatik gauzatu ez dena 2020an. Pentsatuta dago Parkour bat sartzea Obenerrekako frontoiaren inguruan, eta, horretarako, frontoiko hormak eta inguruko urbanizazioa sendotuko dira. Une honetan proiektu teknikoa idazten ari da, egin beharreko lanak zehazteko.

- **Argieriaren inbertsioen partida: 80.000 euro,** bilatzen da energia eraginkortasun handiagoa. Azken urteotan, zuzenean exekutaturako jarduketetan nahiz IDAE1 eta IDAE2 planen bidez, ia 1.8000 luminaria aldatu dira udalerrian. Inbertsio horiek sekulako emaitzak izan dituztenez, eragina izan dute energia aurrezpenean eta kontratatutako potentzian, eta aldi berean dirulaguntza esanguratsuak lortzen ari dira.

- **Ikastetxe publikoetako argiteria hobetzeko partida: 70.000 euro,** 2019an eta 2020an Erguin eskolako luminariak aldatu dira, eta LED luminaria berria jarri. 2021erako pentsatuta dago Bedoñabe eskolako eta Udaletxeko luminariak aldatzea, lehen fase batean.

- **Lorzaintzako inbertsioen partida: 18.000 euro;** helburua da mantentze ainguraketak jarri eta berritzea, ureztatze sistemak jartzea hanbat lorategitan, beste lorategi bat berritzea, eta egitura berriak jartzea faroletan eta beste euskarri batzuetan.

- **Hezkuntzako inbertsioen partida: 130.000 euro.** Erguin eskolako zuzendaritzarekin adostu ondoren eraikineko komunak berritu egingo zirela 2020rako (1. fasea), Covid-19aren pandemiaren ondoriozko konfinamendua, ezinezkoa zenez lanak garaiz adjudikatzea udarako, eta ez jakitea eskolek zer egokitzapen egin behar zuten 2020/2021 ikasturtearen hasierarako, horiek guztiek ekarri zuten luzatu behar izatea obra horiek; hortaz, elkarrekin adostu zuten horiek egitea 2021eko udan, baina obra osoa fase bakar batean egiteko eta ez urte bian, hasieran pentsatuta zegoen bezala. Are gehiago, udalak uko egin behar izan zioen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako dirulaguntzari. Horregatik, 2021eko urtean lehentasuna da komunen erreforma exekutatzea.

Deskribatutako obrak egin eta gero soberakinen bat egonez gero, sailaren helburua izango litzateke soberakin hori bideratzea sortu litezkeen urgentziatzko obretara.

- **Musakolako kiroldegi berriaren proiektuaren partida: 20.000 euro.** Tokiko Gobernu Batzarrak 2017/03/1ean hartutako erabakiz eskatua Ezketa SLP enpresari Musakolan kiroldegi berri baten aurreproiektua egiteko, zeinak balioko duen, dagozkion foroetan eztabaidatu eta gero, markatzeko edo identifikatzeko zer ezaugarri bildu eta bete behar dituzten kirol instalazio berriek, udalak heldu gura dio, urte anitzeko izaeraz, 2021eko eta 2022ko ekitaldien artean, exekuzio proiektua idazteari, eta horretarako, esleitzen da lehen dotazio bat, 25 mila eurokoa, 2020an, osatuko dena gero partida batekin 2021ean. 2021ean udalak abian jarri gura du prozesu parte hartzaile bat, instalazietako erabiltzaileen beharrak ezartzeko.

Azkenik, aurreko urteetan bezala, proposatu da zabalik uztea aurrekontuan, kreditu gehigarri kalifikazioarekin aurrekontuaren exekuzio arauetan jasota, kredituak edo maileguak sinatzeko



aukera, milioi erdi euro arte (azkenean beharrezkoak izanez gero), horrela erantzun ahal izateko azkar samar udalari egokitu dakizkiokeen konpromiso batzuei inbertsio proiektuetan, zeinaren dirulaguntza portzentajea baita kostu osoaren % 40koa edo hortik gorakoa; horrela, aurrez aurrekontu kopururik ez badago ere, ez da izango oztopo bat intereseko proiektuak aurrera eramateko, batez ere kanpo finantzaketako maila handia badute. Hori guztia horrela, baina kontuan hartuta dagozkion neurri osagarriak hartu daitezkeela, indarrean dagoen araudia aplikatzeagatik aurrekontu egonkortasunari buruz, finantza iraunkortasunari buruz eta gastu arauari buruz.

ZAZPIGARREN KAPITULUA: KAPITAL TRANSFERENTZIAK, 1.283.925,82 euros

% 65,24ko gehitzea du, 2020ko aurrekontuaren aldean (+506,9 mila euro).

2020ko aurrekontuari dagokionez, **mantendu dira iaz zeuden partida eta kontzeptu gehienak** (igogailuak jartzeko dirulaguntza /irisgarritasuna hobetzeko, ekarpena Zubillaga Hiltegia SLko inbertsioak egiteko, bai eta ekarpenak ere Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren inbertsioak finantzatzeko, zeinaren kopurua baita 571,5 mila euro (2020an baino 51,5 mila euro gehiago).

Eta, gainera, 2021ean partida berri bat sartu da, Mondragón Unibertsitatea S. COOP. sozietateari eman beharrekoari dagokiona, AI-AE-15 Gautxori jarduketa integratua ituntzeko hirigintza hitzarmenean oinarrituta, sinatu zena 2019ko ekainean eta udala konprometitzen duena diru kopuru bat ematera, 1.375.770 euro (% 21eko BEZa barne), jasotako hirigintza operazioaren oreka ekonomikoa lortzeko behar den kopuruaren truke. Hasiera batean pentsatuta zegoen 2021ean 1.031.827,50 euro ematea, eta 2020an 343.942 euro, eta onartzeko dago urbanizazio proiektua, diru ekarpenaren faseak banatzea finkatuko duena, eta 2021erako kontsignatutako zenbatekoa izango da 375 mila euro, konprometitutako ekarpenaren lehen zatia, eta 2022rako geratzen da ekarpenaren gainerakoa, 1.000.770 euro. Hori guztia bat etorritz obren pentsatutako eritimoarekin, izan ere, sustatzaileen arabera, atzerapen handia izan du eta ez da aurreikusten hura hastea 2021eko bigarren zatira arte.

Azken partida horrek eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari inbertsioak egiteko ekarpenak iagoera handia sortzen dute VII. kapitulu honetan.

Beste alderdi bat ere zpimarratu behar da, IDAEren programei buruzkoa (1 eta 2):

- J Partida bat, bideratua Mankomunitateak itzuli beharreko maileguak finantzatzeko, IDAE1 programaren ondorioz (argiteria publikoko luminariak ordeztzea LED teknologiko beste luminaria batzuez), Arrasaten egindako jardunari dagokiona, zenbatekoa 466.176,22 euro, zeina EVeretik lortutako diru laguntza deskontaturik, 20.686,70 € euro, esan gura du Eneria dibertsifikatu eta aurrezteko Institutu Nazionalari itzuli behar zaiola 445.489,90 euro. Ekarpenak egiten hasi zen, mailegua itzultzeko, 2018ko irailean, eta itzuli beharreko zenbatekoa, 2021eko aurrekontuaren kontura, 51.797,40 euro da, 2020an zegoen kopuru berbera.
- J IDAE2: sinatutako gabealdia igarotakoan, 2021eko urtarrilean hasiko gara Mankomunitateari IDAE2 finantzatzeko emandako mailegua itzultzen. IDAE2



erakundeak 406.085,59 euro finantzatu zituen Arrasaten (IDAEk baztertu egin zuen eskaintzan hobekuntza gisa sartutako 22 luminaria finantzatzea, eta horrek 11.792,10 euroko murrizketa ekarri zuen finantzaketan), eta EEEtik 36.077,86 €-ko dirulaguntza deskontatuta, mailegua da 370.007,73 euro. Data horretatik amortizatu beharreko urteko zenbatekoa izango da 45.120,72 euro 2028ra arte, eta bukaerako kuota bat, 9.041,97 eurokoa, 2029an.

Azkenik, partida bat sartu da, 90.000 eurokoa, udalak izaera pribatuko obretan izan dezakeen parte-hartze ekonomikoari aurre egiteko, lurrazaleko erabilera publikoko zortasuna duten orube pribatuetako jarduketei aurre egiteko dauden jarduketa irizpideak betetzeko.

ZORTZIGARREN KAPITULUA: FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA, 90.00 euro.

Kapitulu honetako diru hornidurak ez du aldaketarik, eta 90 mila euroko kopurua da.

Hala, kapitulu honek garrantzi ekonomiko urria du gastu osoaren aldean, eta normalean bakarrik jasoko lituzke aurrekontu kredituak, langileen aurrerakinak finantzatzeko, 90.000 euroko zenbatekoa; era berean, horiek beste partida bat dute diru sarreretan.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA: FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA, 10.298,12 euro.

Murriztu da % 56,90 2020ko hasierako aurrekontuaren zifrekin alderatuta; izan ere, ekitaldi honetan amortizatu da interesik gabeko aurrerakin itzulgarri bat, Eusko Jaurlaritzak bere garaian emandakoa, 23,9 mila eurokoa, ordainketa bakar batean itzuli beharrekoa 2021ean.

Kapitulu honetako finantza kargak kalkulatzeko, kalkulatu da gehienez 3.200.000 euroko mailegu bat kontratatzea aurreikusita dagoen arren (tramitatuko litzateke benetako beharren araberako mailegu bat), ez dela aurreikusten 2022ra arte amortizazio kuotak ordaintzen hastea, eta ez dela espero 2021ean diruzaintza tentsiorik edo finantza desorekarik egotea, beste mailegu batzuk kontratatzeko eta erabiltzeko, izan litezkeen desfase horiek finantzatzeko.

Hortaz, amortizatzeke geratzen da bakar-bakarrik interes barik aurrerakin itzulgarrietako azkena, emandakoak bere garaian Eusko Jaurlaritzak, 10,3 mila eurokoa, itzuli beharrekoa ordainketa bakar batean 2021ean. Hortaz, 2021erako, aurrekontuan jaso da 10,3 mila euroko kopurua, itzuli beharrekoa Eusko Jaurlaritzari.

Zorpetzeko baliabidea erabiltzeari dagokionez, eta 2021ean maileguak amortizatzea aurreikusten ez den arren bai jasotzen denez mailegu bat kontratatzeko beharra, eragina izango duena 2021eko aurrekontuan, garrantzitsua da hau kontuan izatea:



-) Lege esparruak, aurrekontu egonkortasunari dagokionez 2020ko bukaera arte indarrean, penalizatzen zituen, nola edo hala, zorpetze baxua zuten edo ia zorpetzerik ez zuten udalak (Arrasateren kasua da), ezen sartzan baita zorpetze txikiagoko dinamika batean → amortizazio baxuak → legezko gaitasun txikiagoa zorpetzeko. Ikuspegi horretatik eta albora utzi barik oraingo araudiak baimentzen dituen salbuespenak (aldundiak onartutako arau aldaketak hobetuak), ez du ematen oso logikoa denik azken 40 urteotako zorpetze tasa txikienak, balio absolutuetan eta erlatiboetan, legezko mugak izatea mailegu berriak eskuratzeko. Horregatik, alde hau eskatzen ibili da joko arauen aldaketa bat, erakunde bakoitzaren benetako finantza egoeretara hobeto egokitzeko.
-) Arau aldaketa hori, hainbestetan aldarrikatua, 2020an gertatu da krisi sozial eta ekonomikoaren ondorioz, Covid-19ak eragindako pandemiatik datorrena, nahiz eta, hasiera batean, aldaketa hori nahitaezkoa eta iragankorra izan. Testuinguru horretan, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak alde aurretik hala erabakita, azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretua-Arauaren bidez, finantza neuriei buruzkoa, bereziak eta premiazkoak, aplikatu dakizkiekeenak Gipuzkoako toki erakundeei, etentzat jotzen dira Gipuzkoako toki erakundeen zerga arauak, 2020koak eta 2021ekoak, eta horrek esan gura du ondorioz gabe utzi direla aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak, eta ez dela aplikatu behar gastu araua urte horietan. Gainera, plan ekonomiko-finantzarioak, onartuak aurreko urteetan ezarritako helburuak ez betetzearen ondorioz, gaindituztat jotzen dira (Arrasateko Udala ez dago kasu horretan).

Arau aldaketa horrek, gainera, esan gura du mailegu bidezko zorpetzea lortzeko baldintzak malgutuko direla, eta zorpetzea baimentzen da epe luzeagoko gastu arruntak finantzatzeko, nahiz eta udalaren kasuan ere ez dagoen pentsatuta aukera hori erabiltzea, eta eskuragarriagoa izango da inbertsioak finantzatzeko mailegua kontratatzea, jaso 2021eko aurrekontuan.

Nolanahi ere, foru-dekretu arauemailean gomendatzen den bezala, udalak hartutako erabaki guztiak zehurtiaz eta erantzukizunez hartu behar dira, etorkizuneko ekitaldietan erakundearen finantza jasangarritasuna arriskuan ez jartzeko.

-) Aurreko urteetako aurrekontuen memorian adierazi den moduan, ez dugu ahaztu behar joera izanez gero mailegu berrien baliabidea erabiltzea udalaren aurrezte urriko egoera batean (azken aurrekontu ekitaldietan gertatzen ari dena, hau da, diru sarrera arruntek ia estali ere ez dituztenean egiten gastu arruntak), nahiz eta abiatze egoera izan zorpetze baxukoa edo zorpetzerik gabekoa, gertatu daiteke finantza zailtasunak sortzea, eta, baita ere, bideraezina izatea epe ertainera edo epe luzera. Azken batean, argi izan behar da zorpetzea ez dela aldagai bakarra, kontuan hartu beharrekoa, kontuan hartu behar dira ere ekitaldiko gastuen eta diru sarreraren egitura eta izaera, baita ere, hartuta dauden konpromisoak, oraingoak eta gerokoak, eskaintako zerbitzuetan eta sortutako azpiegituretan.

Azkenik, aurreko aurrekontuetan bezala, aztertu behar dugu zorraren eboluzioa, maileguz mailegu, 1991-2021 aldian, eta erabiliko ditugu 2021eko aurrekontuaren erreferentziak edo



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

estimazioak. Halaber, zor hori lotuko dugu diru sarrera arruntekin, lortu direnak aurrekontuetako likidazioetatik (2020koak izango lirateke, adierazi bezala, itxiera aurrerapenaren datuetan oinarrituta, eta 2021ekoak izango lirateke aurrekontu aurreikuspenen arabekoak), diru sarrera korronteen erreferentzia hori ulerturik udalaren gaitasun ekonomiko arruntaren neurri gisa.



MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA – 1991/2021 ALDIAN (MILA EUROAN)

URTEA	HASIERAKO ZOR BIZIA	MAILEGU BERRIAK	AMORTIZ. EKITALDIA	BUKAERAKO ZORRA	▲AURREKO URT.Z
1991	4.398,2	1.388,9	218,2	5.569	26,6%
1992	5.569	2.013,4	295,7	7.286,7	30,8%
1993	7.286,7	4.771,4	2.372,2	9.685,3	32,9%
1994	9.685,3	2.434	378	11.741,4	21,2%
1995	11.741,4	1.911,2	605,8	13.052,2	11,2%
1996	13.052,2	2.704,6	3.755,1	12.001,6	- 8,0%
1997	12.001,6	---	976	11.025,6	- 8,1%
1998	11.025,6	---	1.033,1	9.992,4	- 9,4%
1999	9.992,4	1.434	1.140,1	8.852,3	- 11,4%
2000	8.852,3	-	1.123,9	7.728,4	- 12,7%
2001	7.728,4	1.803	1.156,3	8.375,1	+8,4%
2002	8.375,1	1.800	1.240,1	8.935,3	+ 6,7%
2003	8.935,3	---	1.429,2	7.506,1	- 16%
2004	7.506,1	---	1.682,5	5.823,6	- 22,4%
2005	5.821,6	5.904,9	1.723,8	10.004,7	+ 71,8%
2006	10.004,7	1,200	1.328	9.874,7	- 1,3 %
2007	9.874,7	---	1.227,2	8.647,5	- 12,5%
2008	8.647,5	---	1.060,2	7.587,2	- 12,3 %
2009 (1)	7.587,2	3.077,5	1.081,9	9.582,8	+26,3%
2010	9.582,8	-	1.403,5	8.179,3	-14,6%
2011	8.179,3	3.111,2 (2)	2.146,0	9.144,5	11,4%
2012	9.144,5	---	2.438,2	6.706,3	-27 %
2013	6.706,3	--	2.312,6	4.393,7	-34,5%
2014	4.393,7	--	1.065	3.328,7	-24,2%
2015	3.328,7	--	966,1	2.362,6	-29,0%
2016	2.362,6	--	714,8	1.642,0	-30,5%
2017	1.642,0	--	315,9	1.326,1	-18,9%
2018	1.326,1	--	973, 7	352,4	-73,5%
2019	352,4	--	318,2	34,2	-90,3%
2020 (3)	34,2	--	23,9	10,3	-69,9%
2021 (4)	10,3	3.200	10,3	3.200	

(1) – Mailegu berritzat jotzen da Foru Aldundiaren aurrerakina, 2009ko UFFFren saldo negatiboarengatik.

(2) – Eusko Jaurlaritzaren interesik gabeko aurrerakina barne (2010eko murrizketa eta 2011ko berria)

(3) – 2020ko aurrekontuaren itxierako estimazioen arabera

(4) - 2021eko aurrekontuko datuen arabera



Maileguen zorra lotzen badugu udalaren diru sarrera arrunt edo korronteekin, eta 1990/2021 aldiko eboluzioarekin, koadro hau daukagu:

DIRU SARRERA ARRUNTETAN MAILEGUEN ZORRAREN ZERRENDA – 1990-2021 ALDIAN


EKITALDIA	ZORRA 12/31n	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	%G./ SARRERA ARRUNTAK
1990	4.398,2	9.767,6	45%
1991	5.569	10.862,7	51,3 %
1992	7.286,7	12.550,9	58,1 %
1993	9.685,3	12.337	78,5 %
1994	11.741,4	13.078	89,8 %
1995	13.052,2	13.477,7	96,8 %
1996	12.001,6	14.944,8	80,3 %
1997	11.025,6	15.971,9	69 %
1998	9.992,4	16.194,9	61,7 %
1999	8.852,3	17.340,4	51 %
2000	7.728,4	19.833,4	39 %
2001	8.375,1	18.784,2	44,6%
2002	8.935,3	19.167,7	45,7%
2003	7.506,1	21.070,8	35,6%
2004	5.821,6	24.461,2	23,8%
2005	10.004,7	24.549,4(*)	40,8%
2006	9.874,7	27.650,8	35,7%
2007	8.647,5	28.870,84	30%
2008	7.587,2	28.469,48	26,6%
2009 (UFFF 2009 zor moduan)	9.582,8	26.072,0	36,7%
2010	8.179,3	27.608,6	29,6%
2011	9.144,5	25.631,8	35,7%
2012	6.706,3	26.665,2	25,2%
2013	4.393,7	27.335,6	16,1%
2014	3.328,7	29.347,6	11,3%
2015	2.362,6	32.485,2	7,3%
2016	1.642,0	30.993,3	5,3%
2017	1.326,1	30.850,0	4,3%
2018	352,4	32.405,2	1,1%
2019	34,2	33.354,8	0,1%
2020 (itxiera estim. arabera)	10,3	29.810,0	0,03%
2021 (2021eko aurrek. arabera)	3.200,0	31.919,4	10,02%

(*) 2005az geroztik, aprobetxamendu lagapen monetarizatuak eta hirigintza kargak ez dira zenbatzen diru sarrera arrunt moduan




Koadro biak aztertuta, ikusiko dugu udalaren egoera ezinhobea, desiragarria, dela zorpetze aldagaiari dagokionez (finantza jasangarritasuna), aztertutakoaldi osoaren unerik onenean baitago 2020an, bai balio absolutuetan, bai diru sarrera arruntei buruz, ulertuta udalaren ahalmen ekonomikoaren adierazpidea edo neurria. 2021erako, zorpetzeko beharra baieztatuz gero, aldatu egiten da 2011tik genuen beheranzko joera.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zein eboluzio izan duten maileguen zorraren aldagaiek eta diru-sarrera arruntek 1990-2021 aldian (2021eko datuak, aurrekontuaren kopuruaren arabera, mailegu berriarekin)





1990/2021 MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA ETA OHIKO DIRU-SARREREKIN DUEN LOTURA
MILA EUROETAN





DIRU SARREREN AURREKONTUA - 2021

Aurrekontua da 36.202.466,00 euro, eta igoera da % 3,94, 2020ko aurrekontuaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2021eko aurrekontuak kapituluz kapitulu, 2020ko ekitaldiaren aldean, koadro hau daukagu:

2020/2021 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUZ KAPITULU (MILA EUROAN)

KAPITULUA	ARREK. 2021	GUZT.%	ARREK. 2020	GUZ. %	ALDAK.	2020/21
I ZUZENKO ZERGAK	7.058,0	19,50%	7.208,5	20,70%	-150,50	-2,09%
II ZEHARKAKO ZERGAK	901	2,49%	901	2,59%	0	0,00%
III TASAK ETA PREZIOAK	7.539	20,82%	7.518	21,59%	21	0,28%
IV TRANSFER. ARRUNT.	16.212,1	44,78%	17.464,3	50,14%	-1.252,20	-7,17%
V ONDARE SARRERAK	209,3	0,58%	204,3	0,59%	5,00	2,45%
VI ONDAREA SALTZEA	501,1	1,38%	901,1	2,59%	-400	-44,39%
VII KAPITAL TRANSF.	492	1,36%	542	1,56%	-50	-9,23%
VIII FINAN.AKT. ALDAK.	90	0,25%	90	0,26%	0	0
FINAN.PASIB. ALDAK.	3.200	8,84%	0	0	3.200	
GUZTIRA	36.202,5	100%	34.829,2	100%	1.373,3	3,94%

Koadro honen bidez egiaztatu daiteke zer aldaketa nagusi izan diren 2021eko aurrekontuan:

- Udal fiskalitatearekin lotutako sarrera kapituluen pisua gutxitzea (I kap.tik III.era – zergak eta tasak), ezen, aurrekontuko diru sarrera guztiak kontuan hartuta, igarotzen baita % 44,9 izatetik % 42,8 izatera, hau da, erabaki kontziente bat udalaren zerga presioa ez handitzeko, zerga neurri batzuekin batera, foru araudiak onartutakoak, onura publikokotzat deklaraturako pertsona eta erakundeei zerga pizgarriak berreskuratzeko, eta horrek ekarri du zerbait gutxitzea diru sarrerak ondasun higiezinaren gaineko zergan eta jarduera ekonomikoen gaineko zergan.




- IV. Kapituluak (transferentzia arruntak) aldaketa handiena ematen da; kasu honetan gutxiagotzea diru sarrerak, bai termino kuantitatiboetan (-1.252,2 mila euro) bai portzentaje terminoetan (pasatu da % 50,14tik % 44,78 izatera), 2020ko diru sarreraren aldean. Gutxitze horren arrazoi nagusia dator 2021eko ekitaldirako Foru Funtsaren diru bilketen aurreikuspenetatik (-1.300 mila euro 2020ko aurrekontuari buruz), izan ere, aurreikusten dute erreiperatzea 2020ko diru sarreraren likidazioari buruz, baina ez behar beste aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspeneko parametroetara itzultzeko.
- Kapital eragiketen pisua (VI. kap. – ondareak saltzea eta VII. kap. – Kapital transferentziak) gutxitu egin da, batez ere hirigintza proiektu bakar bat dagoelako, behar besteko garapen maila duena gauzatu daitekeela pentsatzeko; kapital transferentzien atalean, berriz, aukera badaude ere Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik dirulaguntzak jasotzeko, kalkulatu da jaso beharreko zenbatekoa 2020. urtekoa baino txikiagoa izango dela. Horrela, igarotzen gara % 4,15etik % 2,74era guztiari buruz, eta, beraz, oraindik ere nahiko adierazgarria da diru sarreraren multzoari dagokionez, 2 euro baino zertxobait gehiago sartu den 100 euroko.
- IX. kapituluak - Zorpetzea, 2019an aldeztu aurretik kitatu ostean udalak finantza erakundeekin kontratatuta zuen azken mailegua (kontuan hartu barik mailegu bi daudela Eusko Jaurlaritzarekin, guztira 34,2 mila euro), 2021erako zorpetzera itzuli behar da konprometitutako inbertsioei aurre egiteko eta Covid-19aren pandemiaren ondorioz krisi ekonomikoak ekarriko dituen diru sarreraren gutxitzearen ondorioz, gorago aipatu direnak. Horregatik, aurreikusten da mailegu bat sartu beharko dela, gehienez 3.200.000 eurokoa, aurrekontua orekatzeko.


Honekin batera doazen grafikoetan ikusi dezakegu, batetik, 2021eko aurrekontuaren kapituluak kapituluak eboluzioa 2020ko aurrekontuaren aldean eta, bestetik, diru sarreraren aurrekontuaren kapituluak kapituluak portzentaje banaketa.



2020 ETA 2021EKO AURREKONTUAK ALDERATZEA DIRU SARREREN KAPITULUZ-KAPITULU



DIRU-SARREREN BANAKETA KAPITULUKA - 2021EKO AURREKONTUA





Azkenik, adierazi behar da udalak 2021. urtean sartuko dituen 100 euroetatik:

- **42,81 euro** datoz **udal fiskalitate**tetik (diru sarrerren I, II eta III. kapituluak).
- **44,78 euro** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen **dirulaguntza arruntetatik**, horietatik **41,24 datoz Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik**.
- **0,58 euro** lortzen da **ondarezko diru sarreretatik** (alokairuak, interesak eta abar).
- **1,38 euro** espero da lortzea **ondarea saltzetik eta hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru sarreretatik**.
- **1,36 euro** espero da lortzea inbertsioak finantzatzeko jasotako **kapital dirulaguntzetatik**.
- **0,25 euro** dator **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **8,84 euro** lortuko dira **zorpetze** bidez, hau da, mailegu berriak formalizatuko dira.

Orain diru sarrerren aurrekontuaren aldaera nagusiak aipatuko ditugu.

LEHEN KAPITULUA: ZUZENeko ZERGAK, 7.208.500 euro

Gutxitu da % 2,09, 2020ko aurrekontuaren aldean.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, kontuan hartu dira 2020ko diru sarrera errealak eta ekitaldiaren amaierako estimazioak, Udaleko Osoko Bilkurak 2021erako ordenantza fiskalak ez aldatzeko/handitzeko hartutako erabakiarekin (2020ko uztailaren 28ko osoko bilkuraren erabakiaren arabera). Bitartean, oraindik berretsi barik dago foru arauaren bidez (seguruenik 2020ko aurrekontuak onartzearen foru arauaren barruan), baldin eta Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak aplikatzen badu % 1eko eguneratzea katastro balioetan, eta horrek eragina izango du bai hiri izaerako ondasun higiezin gainerako zergan (konpentsatzen da eraikuntzen balio galtzea/amortizazioaren eraginez gutxitzea), bai hiri izaerako lurren balio gehitzearen gainerako zergan (nahiz eta zerga horretan gutxituta geratu den apur bat haren intzidentzia Konstituzio Auzitegiaren epai baten eraginez, 2017/02/16koa, zeinak deklaritzen zuen transmisioak ez zeudela zergapean baldin eta ez bazen agerian jartzen balio gehitzea).

Presio fiskala ez handitzeko erabaki horrek, Gipuzkoako Batzar Nagusiek otsailaren 11ko 3/2019 Foru Araua onartzearekin batera, zenbait tributu neurri onartzen dituena, zeinak berrezartzen baititu udal zergan aplikatu beharreko onurak, lehenago jasoak apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako pizgarri fiskalen araubide fiskalari buruzkoa, eta 17. artikulua edukiz hornitzen duenez, ondasun higiezin eta jarduera ekonomikoen gainerako zergaren diru sarrerak nabarmen jaitsi dira; izan ere, ezaugarri horiek dituzten udalerriko zenbait erakundek urte batetik aurrera lortu dute salbuespena zerga bietan.



BIGARREN KAPITULUA: ZEHARKAKO ZERGA, 901.001,00 euro

Ez du aldaketarik 2020ko aurrekontuaren aldean. 2019an tamainako hainbat operazio egin dira, eta ekarri dute diru sarrera batzuk, bikoiztu dutenak aurreikusitakoa (1.300 mila euro, aurrekontuan jasotakoa zenean 600 mila euro, eta espero da ekitaldia ixtea zenbateko hori baino kopuru handixeago batez). Era berean, 2020. urterako eragiketa handi samarrak aipatzen ziren, zifra garrantzitsuak espero zitezkeen arren, baina behin eta berriro errepikatu den pandemiaren ondorioz, aurreikuspenak ez dira bete eta diru sarrerak hasieran aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak izan dira. Hala ere, 2020ko bigarren zatia zertxobait errekuperatu da, eta 2021erako espero da zifra altuagoetara itzultzea eta, gutxienez, 2020ko hasierako aurreikuspenera iristea; beraz, 900 mila euroko zenbatekoa esleitzen dugu. Zerga honetan, bere ezaugarriengatik, irizpide bat erabili da apur bat “zuhurra” aurrekontua egiteko, baina gertatu daiteke aurreikuspenetan desbideratze esanguratsu bat izatea (gorantz edo beherantz) eta horrek ekarri dezake ekitaldian egokitze batzuk izatea eta, hala badagokio, gastuen atalera lekualdatzea.

Kapitulu honetako diru sarrerako kontzeptu bakarra da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, eta horrek ez du izan aldaketa esanguratsurik 2021erako, zerga tipoa legez baimendutako gehienez dago eta (%5 obra, eraikuntza edo instalazioaren balioaren gainean). Lehenago adierazi bezala, komeni da gogoan edukitzea aurrekontuko kopurua lortzea dagoela udal kontroletik guztiz kanpo dauden faktoreetatik, zehazki, pentsatutako diru sarrerak lortzeko, zergadunek obra proiektuak egin behar dituzte (udal lizentzia behar dutenak), zenbateko gordina guztira 18 milioi euro. Hortaz, jarraipen bat egin beharko da kapitulu honetako exekuziotik hurbil, aurreikusteko desfaseak eta egokitze beharrak, eraman daitezkeenak gastuen atalera, hori guztia aurrekontua orekatzea bermatze aldera.

HIRUGARREN KAPITULUA: TASAK ETA PREZIOAK, 7.539.000,00 euro

Igotzen da % 0,28, 2020ko aurrekontuaren aldean (21 mila euro), Udaleko Osoko Bilkurak erabaki baitu ez gehitzea 2021ean tasak eta prezio publikoak.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, oinarriztat hartu da 2020. urteko diru sarrera errealei buruzko informazioa, gehi ekitaldi itxieran hemendik sortuko direla aurreikusten direnak, baina ez da aurreikusi hobari berriak ematea jarduera ekonomikoak itxitako sektoreei, itxiak Covid-19aren osasun krisiaren ondorioz, bai eman baitira 2019an. Kontrako edozein erabakik, hau da, edozein erabaki hartuz gero tasen eta prezio publikoen balizko hobariei edo itzulketei buruz, jarraipen egin beharko luke aurrekontu defizitean izan dezakeen eraginari buruz.

Azkenik, adierazi behar da kapitulu honetako lau diru sarrera kontzeptu nagusiek, hala nola ur eta zabor tasak, enpresa hornitzaileek jabetza publikoa okupatzearen tasa eta kirol sailaren diru sarrerak (kiroldegietako tasak), egiten dutela kapitulu honetako zenbatekoaren % 77,40, zehazki, 5,83 milioi euro.



LAUGARREN KAPITULUA: TRANSFERENTZIA ARRUNTAK, 16.212.065,00 euro

Balio absolutuetan murriztu da 1.252,2 mila euro, 2020ko aurrekontuaren aldean, eta % -7,17 portzentaje terminoetan.

Jaiste hori azaltzen du arrazoi nagusi batek, eta hori dator jaitsik egin delako 2021erako Foru Funttsaren diru sarreraren estimazioan, zeina Arrasaterentzat baita 14.786.665 euro, hau da, 1.217,8 mila euro gutxiago 2020ko aurrekontuan jarritako kopurua baino (▼% 7,61). Gainera, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren barruan egindako aurreikuspenekin bat etorriz, 2020/10/19ko bileran, 2020ko itxieraren estimazioak aldaketa negatibo nabarmena izan du, aurrekontuan jasotako zenbatekoei dagokienez (▼2.538,9 mila euro), nahiz eta zertxobait handiagoak izan hasierako aurreikuspenak baino, egindakoak maiatzaren 12ko 3/2020 Foru Dekretu Arauaren bidez, zeinak aldatzen baititu Udal Finantzaketarako Foru Funttsak kontura egindako ekarpenak, zeinak pandemiaren hasieran eta jarduera ekonomikoaren zati handi bat geldiarazten duen alarma egoeraren deklarazioaren hasieran, ez bakarrik Gipuzkoakoa, baita Estatukoa ere, aurreikusitako zenbatekoa % 20 murriztu zuen, hau da, 3.200 mila euro gutxiago.

Arrasaterako, berriro diot, aurreikuspen izaerarekin, berretsi behar dena kontuen behin betiko itxieran, egingo dena 2021eko otsailean, izan daiteke pasatzea 16.004.487 eurotik, 2020ko aurrekontuetan hasieran aurreikusitako kopurua, 16.004.487 euroko azken kopuru batera (▼% 15,86). Horren guztiaren ondorioz, udalak doitze garrantzitsua egin behar izan zuen gastuen aurreikuspenetan, Foru Funttsaren ekarpenaren beherakadari udalaren berezko diru sarrera txikiagoen aurreikuspena gehitu baitzitzaion, gutxi gorabehera 1.600 mila euro; beraz, neurri batzuk hartu behar izan ziren kredituak kentzeko eta inbertsioen birperiodifikazioa egiteko, aurrekontua 5 milioi euro inguruan orekatzeko.

2021eko kalkulua, era berean, oinarrituta dago aurreikuspen batzuetan, Foru Aldundiak horri buruz egindakoak, zehazki % 9,5eko gutxitze batean, Gipuzkoako zerga itunduen bilketan, 2020ko aurrekontuko kopuruaren aldean, baina % 5,81 handitu da 2020ko itxiera aurreikuspenarekin alderatuta. Aldaketa hori egotzi dakioke, funtsean, Foru Aldundiak berak emandako informazioaren arabera, faktore hauen konbinazioari:

- a.- Aurreikusten du ekonomia hazi egingo dela, termino errealetan, % 10,1 hazi ere.
- b.- Arauetan aldaketa jakin batzuk, eragina izan dezaketenak udalen artean banatzekoa den funtsaren azken kopuruan. Beste batzuen artean, jasotzen da Gipuzkoak Eusko Jaurlaritzari eman beharrekoaren koefiziente horizontala aldatzea, zeina pasatuko den % 33,34tik 2020an % 33,49 izatera 2021ean.

Kapitulua gainerako partidetan, erabaki da aurrekontuan jasotzea azken ekitaldian finkaturik dauden dirulaguntza programen zenbatekoak, dagozkion aldaketekin, eguneratutako informazioan oinarrituta. Aldaera horietan, merezi du ere nabarmentzea, kopuruagatik, gizarte ongizatearen sailarentzat direnak, eta horietatik etxeko laguntza zerbitzurako ekarpena, ezen 2021ean aurrekontuan jaso baitira 200 mila euroko diru sarrera batzuk (2020ko aurrekontuan jaso ziren 140 mila), Eudelen eta Foru Aldundiaren artean lortutako akordioaren ondorioz, zerbitzuetan eskumenak berriro izendatzearen testuinguruan eta zerbitzuaren eskarian gehikuntza berriro izendatzearen ondorioz, eta horrek dakar gastu handiagoa udalarentzat, eta neurri berean ez bada ere, dirulaguntza handitzea.



Diru sarrereren beste kontzeptu inportante batzuk izango lirateke EJR-en ekarpena Gizarte Larrialdietako laguntzak jasotzeko, 300 mila euro (aurrekontuko gastuan oinarrituta), Lanbideren diru sarrerak langileen kontratazioak finantzatzeko enplegu sustapeneko programetan, 140 mila euro, eta HABEren diru laguntza udal euskaltegiko zerbitzuaren gastuak finantzatzeko, 380 mila euro.

Aipatu behar dugu ere Europako funtsetatik Interreg Shrec proiekturako datorren ezohiko diru sarrera, 35 mila euroko dirulaguntza aurreikusi baita 2021eko urterako.

BOSGARREN KAPITULUA: ONDARE DIRU-SARRERAK, 209.300 euro

Gehitu egin da apur bat, % 2,45, 2020ko ekitaldiaren aldean.

Kapitulu honek ez du larregiko garrantzi espezifikorik udalaren diru sarrereren multzoan, non diru sarrera kontzeptu nagusia hartzen baitute errentamenduek edo errentak, lortuak ondarearen bidez (kapitulu osoari buruz % 90,8). Gehitzearen jatorri nagusia dator Atxabalpeko kirol instalazioen alokairua berrizetik, errentan emanak hitzarmen bidez, sinatua 2018/01/16an Eibar SD taldearekin, urteko zenbatekoa (BEZa sartuta) 79,1 mila euro, eta nabarmen igotzen du lehendik indarrean zegoen hitzarmenaren errenta (17,7 mila euro urtean 2017an).

Gaur arte beste kontzeptu batek ere garrantzia izan du, udal diruzaintzan lortutako finantza diru sarrerak edo errendimenduak, nahiz eta espero den izatea 2021ean egoera saneatua diruzaintzan, finantza erakundeak gaur egun oso gutxi ordaintzen ari baitira edo ia bat ere ez (aitzitik, kobratutako komisioak handitzen ari dira, eta finantza erakunde gehienek jakinarazi digute 2021erako kobratzen hasiko direla kontu korrronteetan saldoak izateagatik), eta hondar izaera du, eta 2021erako urteko diru sarrereren estimazioa da 1 mila eurokoa.

SEIGARREN KAPITULUA: INBERTSIOAK SALTZEA, 501.100 euro

Jaisten da % 44,9, -400 mila euro, 2020ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Komeni da segurutzat jotzea kapitulu honetan, aurrekontuko partidak eta zenbatekoak, gaur gaurkoz, bakarrik direla diru sarrereren espektatiba generiko hutsak, nahiz eta egon dauden espediente batzuk, aurreratzen dutenak hirigintza operazio batzuk gauzatuko direla (AE39-Fagor San Andres eta abar) eta aurreikusi daiteke aurrekontuko aurreikuspenak lortu daitezkeela. Hau da, une honetan, San Andresko operazioa izan ezik, ez dago operazio zehatzik, garapen maila nahikoa duena, esateko moduan seguru beteko direla 2021eko diru sarrereren aurrekontu aurreikuspenak.

Horregatik, erabaki da sartzea 2020rako baino aurreikuspen txikiagoak; izan ere, Uribesalgo operazioa jada gauzatuta dago 2020an, hirigintza kargen ondorioetarako, nahiz eta dagokion obra lizentzia eskatu barik dagoen. Edozelan ere, babes neurri moduan, kapitulu honen exekuzioa jarraitu eta kontrolatu egin behar da, nahi gabeko desajusterik egon ez dadin ekitaldiko kontuetan.



ZAZPIGARREN KAPITULUA: KAPITAL TRANSFERENTZIAK, 492.000 euros

Murritzten da % 9,23, 2020ko aurreikuspenen aldean. Gutxitze hori gertatu da, nahiz eta Kulturolako obrarako dirulaguntza osagarriaren aurreikuspen bana sartu den. 350.000 euro Gipuzkoako Foru Aldunditik, eta 50.000 euro Eusko Jaurlaritzatik, baina 2020rako aurreikusitakoak baino txikiagoak dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzari dagokionez, 200.000 euroko dirulaguntza bat aurreikusten da aurrekontuetan Kultura sailaren bitartez, baina kasu honetan ere ez dago ebazpenik dirulaguntza horri buruz. Ildo horretan, gogorarazi behar da 2020rako 440.000 euroko dirulaguntza jaso dela.

Bestalde, beste administrazio batzuek berariaz idatzi ditzaketen laguntza programetan nolabaiteko azkartasunez txertatzea errazte aldera, eta, horrela, udalari programa horien kostuan dagokion ehunekoa finantzatu ahal izateko, aurrekontuen exekuzio oinarrietan jaso da aukera bat, beharrezkoa izanez gero, 2021eko ekitaldian harpidetu beharreko maileguen zenbateko osoa 0,5 milioi euroan handitzeko, betiere dirulaguntza bidez lortutako finantzaketa portzentajeak izanez gero inbertsioaren bolumen osoaren % 40koak edo handiagoak.

ZORTZIGARREN KAPITULUA: FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA, 90.00 euro.

2020an izandako kopuru berdina. Oso eragin txikia du aurrekontuan, izan ere, kapitulu honek jasotzen ditu udalak langileei emandako aurrerakinak itzultzetik datozen diru sarrerak, kontzeptu horretarako onartu zen gastuaren kopuru bera.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA: FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA, 3.200.000 euro.

Gaur egungo krisi ekonomikoak zuzenean eragiten du udalaren diru sarreren aurreikuspenean, bai zerga, tasa eta prezio publikoen bidezko diru sarrera propioetan, bai Foru Funtzaren bidezko diru sarreretan, eta egoera horren aurrean, 2021erako jasotzen da 3.200.000 euroko mailegu bat kontratatze beharra. Eta hori, batez ere, udalak konprometituta dituen eta 2021ean aurreikusten diren inbertsioei aurre egin ahal izateko, urrats garrantzitsua emango da 2022tik aurrera, konprometitutako aurrekontu betebeharrak murrizteko. Zehazki, guztia igarotzen bada pentsatutako moduan, 2021ean amaituko dira Kulturolako eta Erguingo igogailuetako obrak, eta berriz hasiko dira Juan Arzamendi Musika Eskolakoak (2022. urtearen hasieran amaitu beharko lirateke), eta exekutatuko da ere Ekobulebar Etxaluze-Maalaren obren zatirik garrantzitsuenak.

Edozelan ere, mailegua kontratatuko da ekitaldiko gastuen eta diru sarreren bilakaerak hala eskatzen duen neurrian. Horri dagokionez, aurreikusteko modukoa da, 2020. urtea ohiz kanpokoa izan arren, aurrekontuaren likidaziotik soberakinak lortzea, eta horrek ekarri lezake



azkenean ez eskatzea aurreikusitako zenbateko osoaren adinako krediturik. Hala ere, gai hori planteatuko da 2021eko martxotik aurrera, 2020. urteko diru sarrera eta gastu erreal guztien berri jakin ostean, eta erabaki politiko espresua egin beharko da (erabili daiteke inbertsio handiagoetarako, zorpetze txikiagorako edo beste helmuga batzuetarako); beraz, une honetan ez du zentzu handiegirik eztabaida hori aurreratzeak.

Lehenago aipatu den bezala, 2020an aldaketa bat gertatu da arau fiskaletan, Covid-19k eragindako pandemiaren ondoriozko krisi sozial eta ekonomikoaren ondorioz, nahiz eta, printzipioz, aldaketa hori nahitaezkoa eta iragankorra izan. Horrek esan gura du aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak baliogabetu egin behar direla, eta ez dela gastu araua aplikatu behar urte horietan. Gainera, plan ekonomiko-finantzarioak, onartuak aurreko urteetan ezarritako helburuak ez betetzearen ondorioz, gaindituztat jotzen dira (Arrasateko Udala ez dago kasu horretan). Arau aldaketa horrek, gainera, esan gura du mailegu bidezko zorpetzea lortzeko baldintzak malgutuko direla, eta zorpetzea baimentzen da epe luzeagoko gastu arruntak finantzatzeko, nahiz eta udalaren kasuan ez dagoen pentsatuta aukera hori erabiltzea, eta eskuragarriagoa izango da inbertsioak finantzatzeko mailegua kontratatzea, jaso 2021eko aurrekontuan. Nolanahi ere, udalak hartutako erabaki guztiak zuhurtziaz eta erantzukizunez hartu behar dira, etorkizuneko ekitaldietan erakundearen finantza jasangarritasuna arriskuan ez jartzeko.

Gainera, zabalik dago, aurreko urteetan bezala, kreditu zabalgarriaren kalifikazioarekin, jaso aurrekontuen exekuzio oinarrietan, 0,5 milioi euroko (azkenean beharrezkoak izanez gero) kredituak edo maileguak eskatzea, udalari dagozkion konpromisoek nolabaiteko arintasunez erantzun ahal izateko; baina aurrekontu zuzkidurarik ez izatea ez da oztopo izango proiektu interesgarriek ekiteko, horiek izanez gero kanpoko finantzaketa maila esanguruatsua. Hori guztia horrela, baina kontuan hartuta dagozkion neurri osagarriak hartu daitezkeela, indarrean dagoen araudia aplikatzeagatik aurrekontu egonkortasunari buruz, finantza iraunkortasunari buruz eta gastu arauari buruz.

Azken batean ez bada gertatzen aukeraren bat dagoela inbertsio berriren bat egiteko era kofinantzatuan, ez da beharrezkoa izango datorren urtean zorpetzera jotzea.

Azkenik, eta memoria honetan zehar aipatutakoaren osagarri gisa, aztertuko dugu zer aldagaik eragiten duten udalaren zorpetze indizean, bai eta indize horren eboluzioa ere 1991-2021 aldian.



ALDAGAIEN KOADROA, ERAGINA DUTENAK ZORPETZE INDIZEAN 1991 – 2021 ALDIA

URTEA	ZOR BIZIA MAILEGUAK	INTERES TIPOA, 12/31n (5)	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	ZORPETZE INDIZEA
1991	5.569	13%	10862,7	9,9%
1992	7.286,7	15%	12.550,9	11,5%
1993	9.685,3	8,75%	12.337	11,5%
1994	11.741,4	8,65%	13.078	14%
1995	13.052,2	9,25%	13.477,7	15,6%
1996	12.001,6	6,35%	14.946	11,2%
1997	11.025,6	4,86%	15.971,9	9,6%
1998	9.992,4	3,36%	16.194,9	9,5%
1999	8.852,3	3,39%	17.340,4	8,6%
2000	7.728,4	5%	19.833,4	7%
2001	8.375,1	3,5%	18.784,2	7,8%
2002	8.935,3	2,9%	19.167,7	9,8%
2003	7.506,1	2,12%	21.070,8	8,6%
2004	5.823,6	2,16%	24.461,2	7,6%
2005	10.004,7	2,49 %	24.549,4	9,3 %
2006	9.874,7	3,73%	27.650,8	5,9 % (4)
2007	8.647,5	4,68%	28.870,84	5%
2008	7.587,2	3,45%	28.469,48	4,7%
2009	9.582,8(3)	1,2%	26.072,0	8,5% (3)
2010	8.179,3(3)	1,52%	27.608,6	8%(3)
2011	9.144,5(3)	2%	25.631,8	10,1%(3)
2012	6.706,3(3)	0,75%	26.665,2	9%(3)
2013	4.393,7	0,75%	27.335,6	4,1% (4)
2014	3.328,7	0,40%	29.347,6	3,4%
2015	2.362,6	0,40%	32.485,2	2,3%
2016	1.642	0,15%	30.993,3	1,1%
2017	1.326,1	0,15%	30.850,0	1,1%
2018	352,4	0,15%	32.405,2	1,1%
2019	34,2	0%	33.354,8	0,1%
2020 (1)	23,9	0%	29.810,0	0,03%
2021 (2)	3.210,3	0,5%	31.919,4	10,05%

(1) Itxiera estimazioaren arabera.

(2) aurrek. datuei buruz

(3) Foru Aldundiarekin 2009ko FFFMren saldo negatiboa sartu da zorraren eta zorpetzearen ondorioetarako, saldo horrek eragin handia baitu finantza kargetan, hiru urtean (2011-2013) itzuli behar baita. Zor moduan zenbatu ezean, 2009., 2010., 2011. eta 2012. urteetako zorpetze indizea izango litzateke, ekitaldiaren amaieran % 4,5, % 4,2, % 6 eta % 5, hurrenez hurren.

(4) Beherakada "ezohikoa" gertatu da, finantza kargak gutxitu direlako, 2005etik aurrera mailegu 2 guztiz amortizatu direlako. Antzeko egoera, 2009ko foru funtsaren saldo negatiboa itzultzea amaitzearen ondorioz eta mailegu 2 amortizatu/kitatzearen ondorioz

(5) 2007 arte, interes tipo errela urte amaieran. 2008tik aurrera, erabilitako interes tipoa, aurrekontuetarako, hurrengo urteko finantza kargak kalkulatzeko.



Koadro honetan ikusi daiteke zelan erlazionatzen diren euren artean zorpetze indizea zehazten duten aldagaiak. Horrela, adibidez, 2,4 miloi euroan igo zen zor bizia 1993an, nahiz eta diru sarrera gutxiago izan operazio korranteak direla-eta, eta horrek ez zuen ekarri zorpetze indizea igotzea, interes tipoa ikaragarri jaitsi zen eta.

Edozelan ere, interes tipoa egonkortu denez apur bat, 1996-2020, ikusten dugu zorpetze indizea dabilela ekitaldi bakoitzeko zor biziaren arabera, amortizazio erritmoaren arabera eta ekitaldi bakoitzeko diru sarrera arrunten eboluzioaren arabera. Atal hauen eraginaren lagin garbia da behartuta gaudela hiru urtean Foru Aldundiari 2009ko UFFFen saldo negatiboa itzultzen, 3,3 milioi euro, ia bikoiztu egiten duena 2009ko ekitaldirako azken zorpetze indizea. Indize hori nabarmen jaisten da 2013tik aurrera, mailegu 2 guztiz amortizatu eta gero (Kutxa eta BBVA) eta behin betiko kitatu eta gero Foru Aldundiarekin dugun zorra.

Ez denez eskatu mailegu berririk 2011tik aurrera, interes tipoak egonkor jarraitzen baitu, zorraren zenbatekoa jaitsi egin baita eta azken urteotan diru sarrera arruntak hazi egin baitira apurka-apurka eta etenik gabe, behintzat, 2015era arte, zeina mantentzen baita egonkor 2015/2021 aldian, elementu horien guztien ondorio bateratuak sortu du serie osoko zorpetze indize baxuenak izatea 2013-2021 aldikoak. 2016/2018 aldian mailegu bakarria dagoenez eta jarraitzen duenez egonkor interes tipoak, nahiz eta zorra jaitsi, mantentzen dira finantza kargak (amortiz.+ interesak), eta horrek esan gura du antzeko diru sarrera arrunt batzuekin zorpetze indizea ia ez dela aldatzen. 2020az geroztik, amortizatuta eta zorra desagertuta maileguetan, zorpetze indizea geratzen da ia ezerezean, ia “zero”an.

Azkenik, 2021eko aurrekontua orekatzeko mailegu berria aurreikusi denez, zor biziaren eta zorpetze indizearen kurba aldatu egin da berriro, eta goranzko kurba hasi da; aldiz, sarrera arrunten kurbak behera egin du, pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren ondorioz, eta espero dugu hura aldi baterakoa izatea 2021eko ekitaldirako.

Honekin batera doan grafikoan ikusi daiteke zein den zor biziaren eboluzioa, maileguetan eta baliabide arruntek likidatutako eskubideetan, eta zein den zorpetzearen eboluzioa 0tik %25era (baimendutako gehieneko muga gisara definiturik).



BIZIRIK DAGOEN ZORRAREN, DIRU-SARRERAKORRONTEEN ETA ZORPETZE INDIZEAREN EBOLUZIOA 1991/2021 ALDIA

